ttipi-ttapa fundazioa | **788. zk.** | 2021eko abuztuaren 12a | **XLI. urtea** | **erran.eus** | TOKIKOM

ttipi-ttapa

Fernando ETXEBERRIA | 'Ezkurra herri paregabea' liburuaren egilea

«BENETAN HARRIGARRIA DA EZKURRARI BURUZ DAGOEN DATU MORDOA»

Sorterriari buruzko beste liburu bat argitaratu du Fernando Etxeberria ezkurrarrak. Ez du herriko kontuez idatzi duen lehenbiziko lana, eta aurreratu duenez, ez da azkena izanen. / 18

Gure artean euskaldundu dira

Euskaraz ikastera eskualdera etorri eta gaur egun bertan bizi diren sei lagunen testigantzak bildu ditu TTIPI-TTAPAK. / 10

SINADURAK

MONIKA AGIRRE CASCALLANA / **3**

AITOR AROTZENA ALBIZU / **3**

ELURRE IRIARTE BAÑEZ / **4**

EÑAUT IPARRAGIRRE ZINKUNEGI/ **4**

UDAKO OPORRALDIA

Uda ona pasa!

Abuztuarekin batera iraila arte agurtzeko tenorea ailegatu zaigu. Irailaren 2an hartuko duzue hurrengo **TTIPI-TTAPA**!

TELEFONO GIDA

ZOZKETA / 32

BERA LESAKA Agenda 2021

ABUZTUA IRAILA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

BERAKOUDALA · berako kultur batzordea · LESAKAKO UDALA

ERAKUSKETA
NIRE GURASOEI OMENALDIA (IGNACIO LARRA)
Uztailaren 31tik abuztuaren 29ra
Lekua Kultur etxeko erakusgelan
Ordutegia 10:00-13:00 / 17:00-19:00
Asteartetik igandera irekia (astelehenetan itxia)
Igandeetan eta besta egunetan arratsaldez itxia
BERA

ABUZTUA

14 LARUNBATA — **MERKATUA** BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA
BERA — **10:30-13:30** Beralandetan

15 IGANDEA — **HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA** HEMENDIKARA (ZIRIKA ZIRKUS)
19:00 Herriko etxeko plaza
Argibide gehiago www.zirikazirkus.com
BERA

19 ORTZEGUNA — **MUSIKA** OLAIA INZIARTE
21:00 Bixkantxenean
LESAKA

21 LARUNBATA — **KONTZERTUA** OLATZ SALVADOR
19:00 Altzateko plaza
Argibide gehiago www.airakamusic.com
BERA

22 IGANDEA — **MUSIKA** INAKI DIEGUEZ ETA XABIER LETURIA 'BETI BIZI ERROMERIA'
19:30 Ziobiko atarian
LESAKA

27 ORTZIRALEA — **BERTSOLARITZA** M. LUJANBIO ETA A. ARZALLUS
19:30 Zubi konkordunean
LESAKA

28 LARUNBATA — **MERKATUA** MERKATU TTIKIA
LESAKA — **10:00-14:30** Beheko Plazan

28 LARUNBATA — **KONTZERTUA** ONKI XIN
BERA — **19:00** Altzateko plaza

29 IGANDEA — **MUSIKA** HURIH
LESAKA — **19:30** Alkaiagan

IRAILA

3 ORTZIRALEA — **KONTZERTUA** JAC
19:00 Herriko etxeko plaza
Argibide gehiago www.bluesjac.com
BERA

3 ORTZIRALEA — **BAKARRIZKETA** ANTTON TELLERIA 'NEKATUTAK'
20:00 Bittiriko plazan
LESAKA

DESKONTUAK
BAZTAN TTIPI TXARTELA



Erakutsi eta aprobetxatu aukerak!

ttipi-ttapa — %10 DESKONTUA eskeletan eta oroigarrietan
Koskontako bidea, 7-1 | LESAKA
T. 948 63 54 58 | bagoaz@ttipi.eus

FOTOMENA — %10 DESKONTUA kopia handitzetan
Santiago, 44 | ELIZONDO
T. 948 58 01 55

EZ — %10 DESKONTUA produktuetan
Santiago, 15 | ELIZONDO
T. 948 58 04 91

BIOK BAT TALLERES — %15 DESKONTUA frenoetan
Santiago, 85 | ELIZONDO
T. 948 58 08 98

Gureaut TAXLERRAK — %10 DESKONTUA baterietan
Zaldubia indus. B partz. 2. nabea | IRURITA
T. 948 58 02 25

SANSIÑENA CITROËN — %5 DESKONTUA olio aldaketetan
Santiago, 37 | ELIZONDO
T. 948 58 04 06

ALMACO BAZTAN GAMMA — %5 %10 DESKONTUA edo OPARIA bainurako gaietan
T. 948 58 01 04 | ELIZONDO
www.almacobaztan.com

bidaide FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA — %25 DESKONTUA zoru pelbikoaren azterketan; %5 DESKONTUA bortz saioko bonoetan
Santiago, 14 - 3B | ELIZONDO
T. 636 58 30 34

POSADA ELBETE — %10 DESKONTUA kartan, txartela duenari
Karrikaundi, z/g | ELBETE
T. 948 58 15 19

GILTXAURDI UDAL KIROL INSTALAZIOA — %5 DESKONTUA neguko denbboraldian 10 eguneko abonoan
Giltxaurdi, 38 | ELIZONDO
T. 948 45 23 01

nafarpress liburudenda — %10 DESKONTUA liburu eta ikas materialetan. Testu liburuak eta DVDak izan ezik
Jaime Urrutia, 43 | ELIZONDO
T. 948 58 09 02

ARGIBEL OPTIKA — DESKONTUA Betaurreko graduatu pare bat erosterakoan, graduazio bereko bertze bat doan
Santiago, 86 | ELIZONDO
T. 948 58 13 91

IRACHE lanatorioak — %100eko DESKONTUA Beila-gelaren erabileran
*Eskatzaileak edo hildakoaren bigarren gradu arteko senitartekoek txartela fisikoki aurkeztu beharko dute.
Santiago, 52 | ELIZONDO
T. 948 63 74 04 | T. 948 19 70 70

NIRE TXANDA

MONIKA AGIRRE CASCALLANA

Hitzen boterea

George Orwellen *1984* liburuaz sarri samar oroitu naiz azken urte eta erdi honetan; are maizago, 'ezbestak' solasa aditzen hasi naizenetik. Eleberrian, hitzek duten botereaz baliatzen dira jendearen pentsamendua manipulatzeko, eta, horretarako, neohizkera deritzon hizkuntza berria erabiltzen dute. Hala, imajinatu: 'txarra' beharrean, 'ezona' erranen bagenu; eta, 'hotza' beharrean, 'ezberoa', horiek errepikatzearen poderioz, 'txarra' eta 'hotza' kontzeptuak ahuldu eta, hondarrean, galdu eginen lirateke.

Hori ikusita, ezargia eta ezegokia izaten ahal da herriko bestei 'ezbestak' deitzea, ezongi konprenitzen baita erran nahi dena edo erran ezin ez dena; neronek ere ez dut sobera garbi. Eta nola harrituko gara, ba, udako ezbai honen erdian, ezhelduek (eta zenbait ezgaztek, noski) ezparrandak egiten badituzte ezordu ttikietan eta ezohiko ezlekuetan?

«EZEGOKIA IZATEN AHAL DA HERRIKO BESTEI EZBESTAK DEITZEA»

Ezbururik eta ezbuztanik ez duten ezgaraiak dira hauek, zalantza izpirik gabe!

EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Toki ona ote dute Tokion?

Hau idazterakoan, urtebeteko atzerapenarekin zuzi olinpikoa piztu berria dute Tokion eta oraindik ez dakite seguru kirolarientzako toki ona izanen ote den… Hiri olinpikora ere ailegatu da koronabirusa eta talde batzuk handik kanpoko hoteletan hartu dute aterpe. Ikuslerik gabe ere, urrezko domina kirolariek edo birusak lortuko ote duten ikusteko dago.

NABARMENTZEKOAK

IKER MARIZKURRENA IMAZ
ARRAUNLARI OHIA

Hamabi urtez Hondarribia Arraun Taldearekin hiru Kontxako Bandera eta zenbait liga irabazi ondotik, arrauna uztea erabaki du Iker Marizkurrena Imaz sunbildarrak.

EKAITZ BERTIZ APEZETXEA
FILM BATEN EGILEA

Zinemarekiko duen zaletasunari bide emanez, *Eustakio* filma argitaratu du Ekaitz Bertiz Apezetxea Sunbillako gazteak. Beldurrezko filma da eta emaitzarekin kontent gelditu da.

ATZERA BEGIRA

2011-08-04 · TTIPI-TTAPA · 548 zk.

Hegaztiak Jon Martinez lesakarrarekin

Gorosti Zientzia Elkartearentzat begirale lanak egiten zituen Jon Martinez naturazale lesakarrarekin bildu zen duela hamar urte Ttipi-Ttapa, hegazti harrapari eta korbidoen errolda egin berritan. Eskualdeko «inguru aberatsaz» mintzatu zen eta horrekin batera «Afrikatik datozen hegaztien artean, gure inguruan, miru beltza, arrano ttikia, arrano sugezalea, belatza eta zapelatz liztorjalea ikus daitezkeela» aipatu zuen. Garai batean «jendeak naturarekin zuen zuzeneko harremana estuagoaz» ere aritu zen: «Lehen naturaren bidez gehiago gidatzen ginen, baina orain hainbertzeko informazioa daukagu! Telebista dela, Internet dela... Beharbada naturarekiko harreman hori zerbait galdu da, bertze hainbat gauza bezala».

ttipi-ttapa

erran.eus

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Nerea Bazterrika, Ruben Oskariz, Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usoa Vicente
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorena, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorena, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apezetxea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdiko Akelarre elkartea

2021eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	40€
Leitza	30€
Hego Euskal Herria	48€
Ipar Euskal Herria, Europa	94€
Amerika eta Australia	140€

Gobierno de Navarra · Nafarroako Gobernua · mecna · Baztango euskara · Bortziriatako Euskara Mankomunitatea · Malerrekako Mankomunitatea

CC BY SA

KOLABORAZIOAK

ELURRE IRIARTE BAÑEZ

Gernikako arbola

Pasatuko zela uste nuen, baina ez. Hor gabiltza, *Gernikako Arbola* kanta gure herriarendako ereserki izateko proposamenarekin: lehenik musikariak izan ziren, gero ezker abertzaleko kideak eta azkenak idazleak. Tartean aunitz maite dudan jendea dago, eredutako ditudanak, erraten dituztenak kontutan hartzen ditudanak. Baina honetakoan ezin dut beraiekin bat egin.

Ereserki baten beharra ikusten dut nik ere, batasunean lagunduko duena eta gure iruditeria eta identitatea osatuko duena. Ez dakit iraganekoren bat berridazten edo berriak sortzen, baina izan dugu, badugu eta izanen dugu sinbologiaren beharra, herri zapaldu gisa aise gehiago.

Horretarako, bere letran bederatzi aldiz kristautasunarekin erlazioa duen hitzen bat agertzen duen kanta, ez zait egokia iruditzen: bedeinkatua, adoratzea, santua, jaungoikoa... Ez dakit zehazki proposamena kanta osoa kantatzea edo estrofaren bat ote den, baina edozein izanda ere, guti salbatzen dira. Hasteko, laugarren paragrafoan, errezatzea eskatzen du, eta denek ezaguna dugun lehendabizikoan 'bedeinkatua', 'adoratzen' eta 'santua' ageri dira.

«ZERBAIT SINBOLIKOA BADA ERE, INTEGRATZAILEA IZATEN AHAL DA »

Hori nahikoa iruditzen zait gaur egun, XXI. mendean, hautatu behar den ereserkia *Gernikako Arbola* ez izateko. Kontutan hartu eta ezagutu behar dugu iraganeko testuingurua gure kulturaren parte diren kanta hauek ulertzeko, ados. Baina horrek ez du erran nahi gaur egun bere horretan gureganatu ahal dugunik, gaur egungoa balitz bezala. Bere momentuan identitatearen parte izateak ez du erran nahi gaur hala denik.

Badakit batzuk argumentuengatik sinatu dituztela idatziak; eta badakit bertze batzuendako momentu honetan *maite zaitut* ere izatea berdin zaiela, indarra ez dutela ereserkian gastatu nahi. Baina, zerbait sinbolikoa izateagatik ere, jartzen ari den indar hori bertze norabide batean paratuko nuke nik.

Erraza da aritzen denari kritikatu gure xokotik, badakit. Niretik proposamen bat botako dut airean. Historian adierazpen identitarioak sortu dituztenak gizonezkoak izan dira beti, arrazoi desberdinengatik. Beraz, hasteko, emakumezko baten hitzak izan beharko lirateke. Kantagintzan gaur ongi egokituko den kanta bat bilatzen ahal dugu edo Euskal Herrian ditugun sortzaileen artean (aunitz eta arras onak) proposamenak eskatu. Eta behar bada bertze zerbait bulkatzeko momentua da: herria inplikatu, diziplina desberdinak erabili... Zergatik ez ereserkia dantza batekin asmatu?

Akaso sobera urrun joan naiz. Baina momentua ere izaten ahal da modernitatea erakutsi eta desberdintasuna adierazteko; zerbait sinbolikoa bada ere, integratzailea dena, denak identifikatuak sentitzeko ereserki bat.

EÑAUT IPARRAGIRRE ZINKUNEGI

Polizia demokratikoa

Azken aldian mahai gaineratu den gai bat da polizia demokratikoarena. Honen arrazoia, historikoki polizia etsaitzat hartu duen Ezker Abertzaleak emandako biraketan dago. Otegi jaunak erran zuen lehendabizikoz Poliziaren demokratizazioaren inguruan hitz egiteko garaia dela, badaudela EH Bildu bozkatzen duten ertzainak (guardia zibilak pentsatzen dut ezetz. Foralez ez zuen aipamenik egin). Ordutik, Ezker Abertzaleko hainbat kide postura hori defendatzen hasi dira. Lesakan ere, seinalatua izan da EH Bilduk gobernatzen duen udala foralekin harremanetan egon dela sanferminak ospatzea eragoz zezaten.

Baina... zer da polizia? Baliteke polizia demokratikoa? Poliziak legeak betearazteko daude. Legeak dio, hipoteka bat ordaindu ezin baduzu, etxetik joan behar zarela (eta bankua hamaikagarren etxearekin gelditukо dela, momentua ailegatzean espekulatzen eta aberasten segitzeko, zu etxerik gabe uzten zaituzten bitartean). Nahiko kasu agerikoa eta erraza. Ze eginen luke poliziak? Bankaria atxilotu, diru nahikorik ez duen langileari etxea kentzeagatik? Politikaria atxilotu, legea haien alde, boteretsuen, burgesen alde egiteagatik? Edo hipoteka ordaintzeko diru nahikorik ez duen hori etxetik bota? Nola egin daiteke hori modu hurbil edo 'demokratiko' batean??

«GU BABESTEKO POLIZIA NAHI BADUGU SISTEMA ALDATU BEHAR DA»

Hemen kontua ez da poliziak Bildu bozkatzen duen edo polizia jakin baten pentsamendua zein den. Aspalditik badakigu poliziak pentsatzen duenak ez duela inporta, poliziak robotak edo zakurrak bezala direla, jabearen errana betez, legeak betez legea justua izan edo ez. Eta kapitalismoan bizi garen bitartean (eta hau da garrantzitsuena, gehienoi atzentzen zaigun arren, 'demokrazia' batean bizi garela saltzen digutelako), bi klase sozial nagusi eta kontrajarrik osatuko dute gizartea: burgesek eta langileok. Burgesak izanen dira boterea dutenak, ekoizpen bitartekoak dituztenak, komunikabideak kontrolatuko dituztenak, parlamentuak beraien politikariez beteko dituztenak, legeak eginen dituztenak, epaileak jarriko dituztenak, baita polizia kontrolatuko dutenak ere.

Kataluniako erreferendumaren harira, bazirudien egun batetik bertzera mossoak txintxoak bilakatu zirela, herriaren eta langileen alde lan eginen zutela... Ordutik 11 lagun bota dituzte beraien etxeetatik, 11 mobilizazio erreprimitu dituzte, Pablo Hasel atxilotu dute Espainiako erregea ustel bat dela errate hutsagatik...

Polizia boteretsuaren zaindaria da. Kapitalismoan bizi garen bitartean, burgesa da boteretsua. Gu babesteko polizia bat nahi badugu, sistema aldatu behar da, bertzela ezinezkoa da.

Sozialismoa eraiki dezagun!

11 GALDERA LABUR

ANTTON APEZETXEA ANSA GOIZUETAKO GAZTEA

«Begirale izatea oso esperientzia polita eta aberasgarria izan da»



Uztailean Goizuetan antolatutako udalekuetan begirale izan da Antton Apezetxea, eta Janire Bakerorekin batera herriko haurrak zaintzen ibili da.

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

20 urteko gazte goizuetar bat naiz.

Zein dira zure zaletasunak?

Kirola egitea eta lagunekin egotea gustatzen zait.

Goizuetako udalekuetako begiralea izan zara. Lehenengo aldia da?

Bai. Iaz ere proposatu zidaten baina ez nuen aukerarik izan.

Zergatik erabaki duzu baietz esatea aurten?

Uda hasieran proposatu zidaten, eta umeak oso gustoko ditudanez, parte hartzea erabaki nuen.

Zenbat haur zaindu dituzue?

Apuntatutako haurrak 21 izan dira, hala ere, ez ziren denak egunero etortzen. Gehienak goizuetarrak dira, baina badira beste ume batzuk kanpoan bizi diren arren, gurasoak goizuetarrak dituztenak eta asteburuetan eta oporretan herrian egoten direnak.

Zer nolako jarduerak egin dituzue?

Mota askotako jokoak egin ditugu: jolas kooperatiboak, ur jolasak, mendi irteerak… Gure helburu nagusia umeek ongi pasatzea izan da. Horrez gain, talde ekintzetan elkar errespetatzea, ulertzea, onartzea… lantzen saiatu gara.

Nolako esperientzia izan da?

Oso polita eta aberasgarria. Nahiz eta umeak lehendik ezagutzen genituen, orain haiekin dugun harremana oso gertukoa da eta Goizueta bezalako herri txiki batean, hainbat adinetako jendea horrela moldatzea oso garrantzitsua iruditzen zait. Taldea nahiko txikia izan da eta umeak oso jatorrak dira, horregatik, ez zait erantzukizun handiko lana iruditu. Gainera, Janirek asko lagundu dit. Bera iaz ere lan honetan aritu zen eta esperientzia du honelako ekintzetan, beraz, oso lagungarria izan da.

Covid-19aren kontrako neurriak ere hartu behar izan dituzue…

Ekintza guztiak kanpoan egin ditugunez, musukorik gabe hasi ginen, baina bi asteren ondoren nik positibo eman nuen eta ondorioz udalekuak astebetez eten ziren. Geroztik, musukoarekin ibili gara.

Zure asmoak epe motzera?

Uda polit bat pasatzea.

Eta epe luzera?

Magisteritza ikasten ari naiz eta titulua laster ateratzea gustatuko litzaidake.

«Musikariak babesik gabe dauden profesionalak dira»

MYRIAM MIRANDA BERROETA MUSIKARI ELKARTEKO KOORDINATZAILEA

2008tik kulturan lan egiten du. Alberdania argitaletxean prentsa eta komunikazio arduraduna izan zen lau urtez eta egun Musikari elkarteko koordinatzailea eta Musika Bulegoko proiektu arduraduna da

G. PIKABEA | GOIZUETA

«Pandemiak lehendik prekarioa zen musikarien egoera are ageriagoan utzi du». Halaxe adierazi du Myriam Miranda Berroeta (Goizueta, 1974) Musikari elkarteko koordinatzailea eta Euskal Herriko Musika Bulegoko proiektu arduradunak denak. Bi elkarteek duten zereginez aritu da Ttipi-Ttapa rekin, baina horrekin batera, argi mintzatu da musikarien egoeraz eta musikarien sektorea profesionalizatzeko beharraz.

Musikari elkarteko koordinatzailea eta Euskal Herriko Musika Bulegoan proiektu arduraduna zara...

Bai, hori da. Musika Bulegoa lau elkartek sortu zuten, Kultura Livek (Euskal Herriko Areto Pribatuen Elkartea), MIEk (Musika Industria Elkartea), Musikarik (Euskal Herriko Musikarien Elkartea) eta Musikagileak-ek (Euskal Herriko Musikagileen Elkartea). Nik Musikarirentzat eta Musika Bulegoarentzat lan egiten dut baina bietan helburu asko partekatzen ditugu.

Zein dira helburu horiek?

Musikari elkartearen helburu nagusia bere bazkideen eta musikara dedikatu nahi duten guztien interesak defendatzea eta aldarrikatzea da, izan musikari profesionalak, izan amateurrak... Horretarako urtean jarduera asko egiten ditugu eta alor asko ukitzen ditugu: fiskalitatea, laborala, elkarrizketak... Musika Bulegoaren helburua, berriz, Euskal Herrian musika-jarduera sustatzea eta hobetzea da, Euskal Herrian sortu eta ekoitzitako musikari balioa ematea eta gizartean duen presentzia handitzea da. Musika Bulegoak musikaren sektore osoko profesional guztiak ordezkatzen ditu: industria, *management* bulegoak, kontzertuetako aretoak... Bere profila askoz ere transbertsalagoa da.

Euskal Herriko Musika Bulego elkarteko lehendakaria izan zinen. Nolako balorazioa eginen zenuke?

Musika Bulegoa 2015ean sortu zuten eta ni 2018an eta 2019an lehendakari izan nintzen. Elkartea hasi berria zen eta Eusko Jaurlaritzaren eta beste erakunde publiko batzuen babesa genuen arren, momentu hura gogorra izan zen, Euskal Herrian existitzen ez zen sistema edo metodologia berritzaile bat hutsetik martxan paratu behar izan genuelako. Musika arloan dena batu eta hori martxan paratzea izugarrizko erronka izan zen eta hori bideratzea tokatu zitzaidan. Lan asko egin behar izan nuen, baina oso balorazio ona eginen nuke eta gainera pozik nago, sektoreari mesede egiten dion erreminta oso indartsua eta baliagarria lortu dugulako.

Bazkideekin funtzionatzen duzue?

Bai. Musikarik 322 bazkide ditu eta horiek, aldi berean, Musika Bulegoko bazkide dira, Musika Bulegoko beste elkarte azpisektorialetako bazkide guztiak bezala. Bulegoan ia 700 bazkide dira, enpresak, musikariak, eragileak, autonomoak... Ordezkagarritasun handia du.

2008az geroztik kultura arloan dihardu Mirandak.

Musikari elkartea 1994an sortu eta 2002an itzali zen. 2012an, ordea, berriz sortu zen. Geroztik nolako martxa du?

Momentu batzuk besteak baino hobeak izan dira, baina 2012an elkartearen behar handia sumatu zutelako sortu zuten berriz. Aurreko aldian langilerik gabe aritu ziren eta horrela zaila da aurrera ateratzea. Ni 2012an hasi nintzen eta geroztik oso ongi funtzionatzen du. Gero eta bazkide gehiago dira eta gero eta gauza gehiago egiten ari gara. Nabarmentzekoa eta eskertzekoa da Musikariko zuzendaritza batzordeko kide guztien esfortzua.

Ordaindu gabeko lan asko egin behar duen sektorea da?

Musikarin zuzendaritza batzordeko kide guztiei nolabaiteko diru sari bat eman izan diegu, baina askotan, musikan edo kulturan, boluntario lana egin behar dela iruditzen zaigu. 'Lagunduko didazu' edo 'hau zuk eginen duzu' esan eta ziurtzat jotzen dugu eginen dutela. Baina zergatik? Azken urteotan, hala ere, batez ere musikarien artean, kontzientzia pizten ari da. Egindakoari balioa eman behar zaio, eta gizarteak ematen duen balioaz gain, ekonomikoa ere bai. Badirudi musikan, eta berdin kulturan, egiten dena ez dela deus kostatzen eta ideia hori oso barneratua dago. Horri buelta eman eta musikarien lanari balioa eman nahian ari gara, garrantzitsua delako egiten duten lanak dirutan zenbat balio duen ikustea.

Jendeak ez du aski baloratzen?

Beste sektore guztiek hitzarmena dute, baina musikariek eta, orokorrean artistek, ez dute deus ere ez. Nola emanen diozu balioa kultura eta musika debaldekoa dela uste baldin badugu? Batek 'nire kontzertuak 4.000 euro balio ditu' esaten duenean, '2.000 euro ordain-

duko dizkizut' erantzuten diote. Baina ez, 4.000 euro balio ditu kontzertuak. Hori defendatzea zaila da hitzarmenik ez badago. Profesionalki, fiskalki eta laboralki musikariak oso egoera prekarioan daude, eta Musikarin eta Musika Bulegoan buru-belarri horretan ari gara. Artistaren Estatutua nahitaezkoa da, lotsagarria da orain arte aurrerapauso ziztrin bat ere ez eman izana.

Pandemiak musikarien prekarietatea ageriago utzi du?

Koronabirusak sektore guztiei eta gizarte osoari eragin dio. Baina pandemiarekin inoiz baino ageriagoan gelditu da musikarien egoera zeinen prekarioa eta tamalgarria den. Oso musikari gutxik eskatu ahal izan dute dirulaguntza, ez zutelako baldintzarik betetzen, eta pandemiak, zerbaitetarako balio izan badu, hori musikarien egoera ahula ikusgarri egiteko izan da. Lehendik bagenekien oso egoera larria zela, eta orain gehiago. Bestetik, larritasun egoera honetan, asoziazionismoak gora egin du, elkarte batek musikarien alde zenbat egin dezakeen ohartu dira. Pandemia garaian aholkularitza ematen aritu gara, bai Musikari elkartean baita Musika Bulegoan, eta lan hori 40 aldiz biderkatu da. Egoera honek mahai gainean paratu du, bai edo bai, beharrezkoa dela profesional horiek babestea eta Artistaren Estatutuaren inguruan lehenbiziko aurrerapausoak ematen hastea.

Zertan da Artistaren Estatutua?

Deusetan ez. 2018ko irailean, Madrilgo Diputatuen Kongresuan, Artistaren Estatutuaren zirriborro bat egiteko azpibatzorde bat sortzea aho batez onartu zuten, eta logikoena zirriborro horretako 75 aldarrikapenak pixkanaka-pixkanaka martxan paratzea izanen litzateke. Baina ez da ia deus egin. Estatutu hori aurreratua izan balitz, beharbada pandemia garaian artistak babestuago egonen lirateke. Baina ez denez deus egin, deus gabe gelditu dira, larrugorritan.

Bost aldiz antolatu dituzte Musika Bulego Sariak eta musika sektoreari «oso ekarpen positiboa» egiten dietela dio Mirandak.

Egoerari buelta emateko zein aukera ikusten dituzu?

Borondate politikoa behar da. Guk, eragile garen aldetik, bi urte daramatzagu estatu mailako plataformetan parte hartzen eta Espainiako Gobernuko Ogasun, Kultura eta Gizarte Segurantza ministerioekin harremanetan. Gure esku dagoena eta gure arduratik kanpo dagoena egiten ari gara, baina legeak aldatzea ez dago gure esku. Lau ministeriotako araudiak eta legeak aldatu behar dira Artistaren Estatutua egia bihurtzeko eta hori Espainiako Gobernuaren ardura da. Frustragarria da deus egiten ez duela ikustea, baina gure aldarrikapenekin segituko dugu. Egia bihurtzen denean sektorea askoz gehiago profesionalizatuko da, eta modu duinean lan egiteko aukera izanen dute. Babestuak sentituko dira, baldintza hobeekin ariko dira, kontratatuko dituzte, pentsioko dirua kotizatuko dute, langabezian gelditzen badira langabezia-saria izanen dute, gaixorik edo haurdun gelditzen badira kobratuko dute... Orain zer gertatzen da musikari bat haurdun gelditzen bada? Egoera latza da, larri-larria.

75 aldarrikapenen artean zer nabarmenduko zenuke?

1985eko 1435 errege dekretua aldatzeko eskaera. Dekretu horrek ikuskizun publikoetako artisten lan harremana arautzen du eta oso zaharkitua gelditu da. Toki berean eta langile finkoak diren musikariak bakarrik hartzen ditu kontuan, adibidez, garai batean hoteletan bakarrik jotzen zuten talde finkoak. Horrek orain ez du zentzurik. Musikari batek zenbatentzat jotzen du? Zenbat udal, gaztetxe edo kultur etxeentzako egiten dute lan? Eguneratu beharra dago.

Musika sektorea nola ikusten duzu Euskal Herrian?

Itxaropentsu ikusten dut, berpizten eta nolabaiteko normaltasunera bueltatzen ari da. Beti esan izan dut musikaren aldetik Euskal Herrian izugarrizko kalitatea, aniztasuna eta aberastasuna dugula. Oso-oso musikari onak daude, goi mailako kalitatea dutenak eta genero musikal guztietan ari direnak. Horrek, aldi berean, sortzaileak eta artistak babesteko ardura sortzen du eragile eta erakunde publikoen artean.

Nolako etorkizuna ikusten duzu?

Sektoreak erronka asko ditu. Lehenik eta behin, musikarien, eragileen eta erakunde publikoen artean, kontzientziazioa eta sentsibilizazioa indartu behar dira. Baina erronka nagusiena sektorea profesionalizatzea da, sektore honetan ari direnek beste edozein profesional bezala tratatuak izan behar dute. Paradoxikoa eta ironikoa da, baina Euskal Herrian behin eta berriz errepikatzen dugu bertako musika zeinen aberatsa den, hemendik kanpo zeinen arrakastatsua den, eta edozein ekimenetan bada musikari edo bertsolariren bat. Baina babesik gabe dauden profesionalak dira.

Euskaraz ez jakitetik euskaraz bizitzera

Giro erdaldunean sortu arren, euren borondatez euskara hutsetik ikasi duten sei lagunen bizipenak bildu ditu TTIPI-TTAPAk. Eskualdeko herrietara etorri ziren euskalduntzera baina egonaldiak bertan bizitzen gelditzeko atea ireki zien

G. PIKABEA

Bizkaitarrak dira gehienak, baina bada nafar eta gipuzkoar bana ere tartean. Guraso edo aitzinekoak euskaldunak dituzte batzuek, erdaldunak bertzeek, baina denak ere giro erdaldunean jaiotakoak dira, etxe barrenean eta kanpoan erdaraz egin izan dutenak. Hori, ordea, iragana bihurtua da aspaldixko, euskara ikasteko nahiak eta gogoak euskaraz deus ez jakitetik euskaraz bizitzera eraman baititu, etxean, lagunartean eta lanean euskaraz egin eta euskara euren hizkuntza dela sentitzeraino. Gure eskualdeko herriak izan dituzte horretan bidelagun, familia euskaldunetan egindako egonaldiak batzuen kasuan, eta barnetegiak bertzeen kasuan. Zigor Sagardui (Bilbo), Gotzon Arenas (Algorta), Ernesto Dominguez (Leioa) eta Janire Rekalde (Portugalete) bizkaitarrek Goizuetan, Arantzan eta Zubietan egin zuten euskalduntzeko bidean pauso handiena, eta Jabi Moreno (Villafranca) nafarrak eta Mª Isabel Renteria (Pasai Antxo) gipuzkoarrak, berriz, Leitzan.

Argi utzi dute «nahi izanez gero euskaraz ikas daitekeela», «gogoa» behar dela. Eurek dira horren adibide, bakar batek ere ez du ama hizkuntza euskara, baina euskaraz bizitzea lortu dute eta «merezi duela» diote. Are gehiago, euskaldun zaharrei «eskura duten altxorraz jabetzeko eta zaintzeko» deia egin diete.

«Hasiera gogorra izan zen baina Leitzan erabat euskaldundu gara»

Euskara ikasteko nahiak bultzatuta ailegatu ziren Mª Isabel Renteria (Pasai Antxo, 1962) eta Jabi Moreno (Villafranca, 1963), Leitzako Etxe Txuri barnetegira, 1986an etorri zen Renteria «nire bigarren barnetegia egitera» eta 1987an Moreno, «kasualitatez». «Mailagatik Kortezubira joatea tokatzen zitzaidan baina orduan Laudion bizi nintzen eta urrutiago joan nahi nuen. Horrekin tematu eta Leitzara etorri nintzen».

Biek ere hutsetik hasi behar izan zuten. Renteriak «gurasoak euskaldunak» zituen, «aita Bakiokoa eta ama Urretxukoa, baina oso euskalki desberdinak zituzten, eta Pasaia orduan erdalduna zen. Etxean eta kanpoan erdaraz egiten genuen». Bere erabakia izan zen euskara ikastea, «klase batzuk hartu nituen baina *ti-ta* ikasi nahi nuen eta norabait joatea erabaki nuen, bestela ez nuelako ikasiko». Hala, lau hilabetez Lekeitioko barnetegira joan zen lehenbizi eta Leitzarako barnetegira gero.

Morenok «euskaraz deus jakin gabe» eman zuen pausoa. «Giro erdaldunean bizi nintzen, baina garbi nuen ikasi nahi nuela». Helburu horrekin, gau eskoletan ibili zen, «baina oso gutxi» eta «ikasketak bukatuta barnetegian izena eman nuen, Laudioko Udalak euskara ikasteko ematen zuen dirulaguntzarekin». Hala ailegatu zen «autobusez Tolosara eta handik taxiz Leitzara. Taxistari ez genion deus ulertu».

Leitzako egonaldia «oso esperientzia polita» izan omen zen, nahiz eta Moreno «ailegatu orduko damutu» zen: «aditzen taulak ikaragarriak iruditu zitzaizkidan. Ez nuen tutik ere ulertzen». Renteriarentzat ere «hasieran erabat euskaraz egitea gogorra izan zen». Baina azkar aldendu zitzaizkien kezkak, «herrian ateratzen hasi ginenean gaitz guztiak pasatu zitzaizkigun», dio Morenok. Eta Renteriak Etxe Txuritik kanpo egiten zituzten «mintzapraktika saioak» aipatu ditu: «parrandak, baserrietara bisitak, aterald-

Jabi Moreno eta Mª Isabel Renteria oso pozik daude lortu duten mailarekin.

diak... Pasai Antxoko lagunek asteburuetan ez nintzela joaten esaten zidaten. Nola joanen nintzen Leitzan zegoen giroarekin!».

Urteak pasatu dira geroztik, eta Leitzan «erabat euskalduntzeaz» gain, familia bertan osatu dute. Renteriaren kasuan, «barnetegiaren ondoren, bertan gelditu nintzen, ingeleseko klaseak ematen. Gero lanera bueltatu nintzen, baina nire bikotekidea dena, Leitzakoa, ezagutu nuen eta 35 urte ditut Leitzan bizitzen». Morenok ere leitzarra du bikotekidea, duela 34 urte «gure irakaslea zena» eta Leitzan dute habia: «Urte batzuk Bizkaian egin genituen baina haurra jaiotzerako Leitzara etorri ginen eta hemen egin dugu bizitza, oso gustura».

Bidean izandako «anekdotak ere mila» dituzte, tartean, Koxme tabernako edo inauterietako eskean izandako historiak, esandakoa ulertu ez eta zeri erantzuten zieten jakin gabe 'bai' edo 'ez' esan izan duten aldiak... «*Kutsidazu bidea, Ixabel* liburuan eta filmean bezala, baina errealitateak fikzioa gainditzen du», dio Morenok. Denaren gainetik, «oso pozik» daude: «Ez genuen uste honaino ailegatuko ginenik».

«BARNETEGIETARA JOAN EZ BANINTZ EZ NUEN IKASIKO»

Mª ISABEL RENTERIA, LEITZA

«'KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL'EN BEZALA DA»

JABI MORENO, LEITZA

Janire Rekalde Portugaletekoa da sortzez eta gaur egun Iturenen bizi da.

«Hemengoek zorte handia dute euskara naturalki ikasi dutelako»

Irakasle-ikasketak zituen begiz joak eta «euskaraz jakin gabe» bide hori zaila izanen zela ikusita, «20 urterekin» euskaltegian hasi zen Janire Rekalde Villa (Portugalete, 1988). Hutsetik hasi behar izan zuen, «koloreak eta zenbakiak ikasten», eta «18 hilabetez, egunero bost orduz euskaltegian ibilita» aurrerapauso handiak lortu zituen: «Gramatika asko ikasi nuen eta konturatu gabe EGA azterketa egiten ari nintzen». Baina «hitz egiteko erraztasun falta» sentitzen zuen eta udan familia batera joatea erabaki zuen; hori bai, Nafarroara: «aita Ezkarozekoa dut eta ttikitatik asteburuetan eta oporretan herrira joan izan gara. Bizkaian baino denbora gehiago eman dut Nafarroan eta euskara ikasteko egonaldia Nafarroan egin nahi nuen. Lehentasunaren arabera, Goizueta, Erratzu, Zubieta... markatu nituen eta Zubieta tokatu zitzaidan». Han hurbildu zen, «22 urte nituela» uztaila pasatzera, eta ez da damutu. «Hasieran beste hizkuntza batean ari zirela esaten nuen, ez nien tutik ulertzen». Hasierako ustea baino ez zen izan, «beraiek beti euskaraz eginda asko ikasi» zuela baitio. «Familiarekin ere oso-oso gustura» egon omen zen: «Harremana mantendu genuen eta hiruzpalau aldiz, beraien etxera gonbidatu ninduten». Uztaileko egonaldiko «azken egunean» ezagutu zuen «Arkaitz, gaur egun nire senarra dena» eta 11 urte pasatu dira geroztik. «Unibertsitatean ari nintzela, asteburuetan elkartzen ginen eta ikasketak akitutakoan Zubietara joan nintzen, Arkaitz Zubietan bizi baitzen. Etxerik aurkitu ez genuenez, Iturenen gelditu ginen». Malerrekan «oso ongi» moldatu dela dio eta, ez hori bakarrik, «oso eskertua» sentitzen da, «hasieratik hain ongi» hartzeagatik. Euskarak ateak ireki dizkiola ere aipatu du: «Ez nuen inoiz pentsatuko D ereduko irakaslea izanen nintzenik». Euskara bere «eguneroko hizkuntza» izateko bidean, bikotekideak «asko lagundu» diola ere azaldu du «beti euskaraz egin baitit». Gainerakoan, jende euskalduna erdaraz aditzea «arraroa» egiten zaio: «nik kristoren ahalegina egin behar izan dut ikasteko, baita ekonomikoki ere, eta Portugaleten ez nuen euskaraz aritzeko aukerarik. Hemen, ordea, zorte handia dute ttikitatik naturalki ikasi dutelako eta hori aprobetxatu beharko lukete». Inguruan bizi diren erdal hiztunei ere «euskara ikastera animatzeko» esan die: «motibazioa eta hasieratik hizkuntza erabiltzea da gakoa».

«EZ NUEN INOIZ PENTSATUKO D EREDUKO IRAKASLE IZANEN NINTZENIK»

Leioako Ernesto Dominguezek familietan bi egonaldi egin zituen Zubietan.

«Familia, lana, harremanak... euskarak dena eman dit»

Aita Zamorakoa eta ama «bizkaitarra, euskaldun zaharra» du Ernesto Dominguez Oleak (Leioa, 1972), «baina ez dakit zergatik, ez zigun euskara transmititu». Hala, «eskolan erdaraz ikasi genuen eta etxean ez genuen deus egiten euskaraz». Egunerokoan, «auzo erdaldunean bizi nintzenez, ez nuen euskararen beharrik sentitzen», baina asteburuetan, «arraro» sentitzen omen zen, «baserrira joaten ginenean gu ginen euskaraz ez genekien bakarrak». Azkenean, «beharra sentituta, 16-17 urterekin, udal euskaltegia izena eman eta, poliki-poliki, euskara barneratzen hasi nintzen». Are gehiago, «mundu berri bat ezagutzeko» bide eman zion: «hizkuntza, ohiturak, kultura... Ezagutzen ez nituen zenbat gauza!». Aurrera egin ahala, «familia batekin hilabete bat pasatzeko aukeraren» berri izan zuen eta horrela ailegatu zen Zubietara, 21 urterekin lehen aldiz eta hurrengo urtean berriz: «oso esperientzia polita izan zen. Familiarekin ere oso ongi egon nintzen». Horrek erdaraz hasiak zituen irakasle-ikasketak euskaraz akitzeko atea ireki zion eta Zubietan, besteak beste, «dena ez dela euskaltegian ikasitakoa bezalakoa» ohartu zen: «Hasieran zenbat aldiz esan ote nuen 'barkatu, errepikatu', ez nuelako ulertzen. EGA atera eta kristoren maila nuela pentsatzen nuen, baina Zubietan ikusi nuen ezetz». Horren harira, «jendearen pazientzia eskertu» du eta anekdota bat ere aipatu du: «nire lehengusina bat Zubietako familia batera etorri zen eta behin, bertako batekin kotxean gindoazela, lehengusinak 'Zelan?' galdetu zion, bizkaieraz 'Zer moduz zaude?', eta zubietarrak 'ni mekanikari' erantzun zion». Geroztik «herriko hiztegi aberatsa ezagutu eta barneratu» nahian segitzen du, eta horrela «gozatzen» du. Bestalde, orduan ezagutu zuen «gaur egun nire emaztea dena: Zubietara etorri nintzen lehenbiziko urtean Eva ezagutu nuen eta elkarrekin hasi ginen». 2007an erabaki zuten Zubietara bizitzera etortzea, «aurretik Leiora joan ginen. Ahal den bezala euskaraz bizi ginen, baina zerbait falta genuen. Herri euskaldun batean bizi nahi genuen eta emaztea zubietarra izanda, aukera paregabea ikusi genuen. Aldaketa onerako izan zen». Eta nola diren kontuak, «euskarari zerbait zor niola» sentituta, «2009an eta 2010ean euskaldun berriak etxean hartu genituen». Ez da damutu egin duen bidearekin: «familia, lana, bertakoekin harremanak... Euskarak dena eman dit».

«EUSKARA IKASTEN HASITA MUNDU BERRI BAT EZAGUTU NUEN»

Gotzon Arenas algortarrak 21 urte daramatza Arantzan bizitzen.

«Arantzan nagoenetik ikasi dut behar bezala euskaraz»

Euskara ikasteko bidean, euskaltegian eman zituen lehenbiziko pausoak Gotzon Arenas Salazarrek (Algorta, 1968). «Amama euskalduna» eta «etxean euskal kulturarekiko atxikimendua» izanagatik, ez zekien euskaraz: «etxean eta lagunartean erdaraz egiten genuen eta eskolan euskara ikasgaia kopiatuta gainditzen nuen». Bere gisa apuntatu zen euskaltegian: «bizpahiru urtez euskaltegietan hasi eta utzi ibili nintzen». Baina hura ez zela aski ohartu eta barnetegi batera jo zuen: «Liburutegian nintzela, aldizkari batean Arteako barnetegiko iragarki bat ikusi nuen eta izena eman nuen». Hantxe joan zen bi urtez Arteara, eta hirugarrenean, Arantzara: «Hasieran, Adunara joatekoa nintzen eta aste bat lehenagotik Arantzara joan behar nuela erran zidaten. Ez nekien non zen ere». 1999ko uztailean egin zuen Arantzako bidea: «Lau lagun ginen, bat Oiartzunen utzi eta Aginan barna Lesakara etorri ginen, gero Lesakatik Igantzira eta halako batean Arantzara. Hura zer arraio zen pentsatu nuen». Baina hamabortzaldi hartako «hagitz oroitzapen onak» ditu. «Ia egunero parranda egiten genuen, eta hurrengo egunean, 09:00etarako klasera joaten ginen». Ez hori bakarrik. Arantzako egonaldiak gehiagorako eman zion, besta haietako batean ezagutu baitzuen gaur egun bere bikotekidea dena: «bigarren asteko ortziralean herritarrekin afaria egin genuen eta orduan ezagutu nuen Idoia. Igandean Algortara bueltatzekoa nintzen...». Eta joan zen, baita bueltan etorri ere: «Algortan aste bat egin eta uda pasatzera Arantzara bueltatu nintzen». Futbola tarteko berriz joan zen Bizkaira, baina «segidan lesionatu» eta «astebururo Arantzara etortzeko aukera» izan zuen. Azkenean, 2000ko udan etorri zen Arantzara bizitzera. Dioenez, «hemen nagoenetik ikasi dut behar bezala euskaraz. Hori da hizkuntza bat ikasteko bidea». Hori bai, tartean, ezin ulertu bat baino gehiago izandakoa da: «gazteak hika sumatzen nituen, batzuk euskara itxian, edo Idoiaren aita lagunartean baserriko kontuez, hika... Ez nien deus ulertzen, swahilia iruditzen zitzaidan». Geroztik ederki barneratu du, eta «hika ez ikasi izanaren pena» baldin badu ere, euskaraz bizi da. Lanean ere «zorionez gehienetan euskaraz egiten dut». Garbi du «nahi izanez gero» ikas daitekeela eta gainera, egin behar dela dio: «Ingalaterra joaten banaiz, eta han integratu nahi badut, zer eginen dut? Ingelesa ikasi. Ba hemen gauza bera».

«HASIERAN EZ NUEN ULERTZEN, SWAHILIA ZIRUDIEN»

Zigor Sagardui bilbotarra 2005etik Goizuetan bizi da.

«Eskualde euskaldunean bizitzeko oso inportantea da euskaraz jakitea»

Euskara ikasi nahi zuelako hurbildu zen Zigor Sagardui Mendieta (Bilbo, 1975) lehenbiziko aldiz Goizuetara, «21 urte nituela», eta bizitzak eman dio bertan gelditzeko bidea. Familia erdaldun batean jaio eta hazi zen: «etxean erdaraz hitz egiten genuen, eta ikasketak erdaraz egin nituen». Baina «gurasoek, beraiek ezin izan zutela eta, arreba eta biak euskara ikastera bultzatu gintuzten eta udalekuetara bidaltzen gintuzten». Unibertsitatean zela, «betitik euskara ikasteko nuen nahiari» eutsiz, euskaltegian apuntatu zen: «Bizpahiru urte egin nituen». Horri esker, «gramatika eta testuen ulermena gutxi gorabehera kontrolatzen» ikasi zuela dio, «baina beti hitz egiterakoan zailtasunak eta hiztegi falta sumatzen nituen». Hori horrela, «Bilbon euskaraz aritzeko aukera handirik» ez zuela ikusita, *Egonaldiak familia euskaldunetan* programan eman zuen izena: «Bi lehengusu Gipuzkoan ibiliak ziren eta euskara praktikatzeko aukera ona iruditu zitzaidan». Nafarroa «nahiago» zuenez, «lehenbiziko aukera Zubieta jarri nuen, eta azkenean Goizueta tokatu zitzaidan». Hala pasatu zuen 1996ko uztaila Tximistatarren etxean. «Oso harrera ona egin zidaten eta oso ongi egon nintzen. Hilabete batez erabat euskaraz bizi izan nintzen. Hasieran, hemengo euskara arraroa egin zitzaidan, baina gero ohitu nintzen, beharko ohitu!», dio umoretsu. Orduko oroitzapen «oso onak» gogoan, «hurrengo urtean, festetan» berriz hurbildu zen. «Orduan ezagutu nuen Olaia, goizuetarra, eta elkarrekin hasi ginen». Hori izan zen 2005ean Goizuetara bizitzera joateko aitzakia eta, bateko eta besteko, «euskaraz deus ez jakitetik euskaraz bizitzera» pasatu da, «nire hizkuntza dela» sentitzeraino. Alde horretatik, jende euskalduna erdaraz sumatzea «batzuetan ulertzen zaila» egiten zaio: «Nik euskaldunen artean bizi nahi nuen eta ezin nuen. Eta hemen aldrebes gertatzen da, aukera izan eta erdararako joera; pena da. Ez dira konturatzen zer altxor duten». Haiei egin die «erabiltzeko» deia, «hizkuntza bat mantentzeko erabilera garrantzitsua delako». Inguruan bizi diren erdal hiztunak ere ikastera animatu ditu: «Eskualde euskaldun batean bizitzeko oso inportantea iruditzen zait euskaraz jakitea. Nahi bada posible da». Bere kasua da adibide, eta gurasoak ere euskaltegian ditu, «bilobekin euskaraz hitz egin ahal izateko». Argi du: «merezi du».

«EUSKALDUNAK ERDARAZ ARITZEA ULERTZEN ZAILA EGITEN ZAIT»

EUSKARAREN TXOKOA

Zaindu maite duzun hori...

Bitxikeriak

* Izartxoa dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Aitzineko aldi batean bezala, Lurdes Irigoien aranztarrak bildutako esapide bat ekarri dugu aldi honetan Euskararen Txokora: *leher.*

Irigoienek erran bezala, *Leher egin, lehertu* aditzaren sinonimoa da. Beraz, *globoa lehertu da* edo *globoak leher egin du* erran daiteke. Baina gure euskalkian bertze adiera bat ere badu *leher egin* honek.

-Leher eginda dago = Hagitz-hagitz nekatua dago.

Baina, beti ez da aditza, *leher*-ek kantitatea adierazteko ere balio baitu. Konparazio batera:

-Diruz leher badu horrek = Hagitz aberatsa da.

-Aurten sagarraz leher badugu = Aurten sagar aunitz izan da.

Eskerrik asko, Lurdes!

Zein da zuzena?

***'Bihar ere argituko du egunak'** edo **'bihar ere argituko du eguna'**

Subjektu agerikorik gabeko 'eguna zabaldu, egunargia agertu' adierazi nahi denean, *eguna argitu* eraketa da zuzena, ez *egunak argitu.

-*Bihar ere argituko du egunak > Bihar ere argituko du eguna.

-*Neguan hagitz berandu argitzen du egunak > Neguan hagitz berandu argitzen du eguna.

Subjektu agerikoa dutenetan ez dago zalantzarik:

-Eguzkiak argitzen du mundua

Bikoteak

Nola osatuko zenituzke bikoteak?

Herra	Aukeran
Idiko	Uzta
Hautan	Kare
Berantetsi	Gorroto
Ereizio	Idisko
Gisu	Berandu dela uste izan

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...
Animatu eta parte hartu!

info@ttipi.eus
744 48 43 61

Musika ekitaldiak eta gehiago abuztuan

Bertzeak bertze, Joseba Tapia, Olatz Salvador eta Onki Xinen kontzertuak antolatu ditu udalak ondoko larunbatetan

TTIPI-TTAPA

«Osasun egoera larriagatik» uztailaren 16tik 26ra arteko kultur eta kirol ekitaldi guztiak gibelatzea erabaki zuen udalak, baina abuztuan sartuta, hainbat hitzordu antolatu ditu.

Abuztuaren 7an, erraterako, Jokai jolasak izanen dira, egurrez egindako eta euskal mitologian inspiratutako jolasak, 11:00etatik 14:00etara merkatu plazan. Egun berean, Joseba Tapiak kontzertua emanen du Altzateko plazan, 19:00etan.

Abuztuaren 14an, bertako ekoizleen merkatua izanen da, 10:30etik 13:30era Beralandetan. Abuztuaren 15ean, berriz, Zirika Zirkus konpainiarekin *Hemendikara* haurrentzako ikuskizuna antolatu dute herriko etxeko plazan, 19:00etan.

Abuztuaren 21ean, Olatz Salvadorrek kontzertua emanen du Altzateko plazan, 19:00etan. Toki eta ordu berean, hilaren 28an, Onki Xin musika taldeak joko du.

Bertzetik, abuztuaren 29ra arte ikusgai izanen dira Ignacio Larraren *Nire gurasoei omenaldia* erakusketako lana kultur etxeko erakusgelan.

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

Udalekuetan ari dira berriz ere

Osasun egoerak hala behartuta, egun batzuetako atsedena egin behar izan bazuten ere, uztail hondarrean berriz hasi zituzten Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatutako udalekuak. Hasierako egunetan 68 haur ibili ziren eta laugarren astean 58 neska-mutiko. Zazpi begirale izan zituzten.

Zian eta Kaulen zakurren erasoak

Azken egunotan Zian eta Kaulen zakurrek hainbat artalderi eraso egin diete. Txakur jabe direnek beraien zakurrak gauez eta egunez kontrolpean izan ditzatela eskatu du Udalak.

Udalak bi langile kontratatzeko deialdiak egin ditu

Hautagaiek izena emateko eta curriculuma eta formakuntza agiriak aurkezteko abuztuaren 31ra arteko epea dute

I. ELIZAGOIEN

Etxalarko Udalak bi langile kontratatu nahi ditu, bata udal eraikinak garbitzeko eta bertzea usategietan ehiza zaintza lanak egiteko.

Garbitzaile bat eta usategietan aritzeko bertze bat

Udal eraikinak garbitzeko kontratazioa lanaldi erdikoa izanen da eta interesa duenak Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda egotearekin batera, langabea izan eta garbitzaile gisa lan egiteko zerrendan apuntatuta egon behar du. Modu berean, udaletxean ere lanposturako izena eman beharko duela jakinarazi dute.

Usategietan ehiza zaintza lanak egiteko deialdiari dagokionez, aipatzekoa da urriaren 1etik azaroaren 20ra, bitarte luzatuko dela eta lanpostuaren ardura duenak Iarmendiko usategietan ehiza zaintza lanak egin beharko ditu.

Izen-ematea abuztuaren 31ra arte

Lan eskaintza horietakoren batean interesatuta daudenek abuztuaren 31, hondarreko asteartea, baino lehen Etxalarko udaletxean aurkeztu beharko dituzte curriculuma eta formakuntza agiriak.

2019ko Aitor Danboriena memorialeko irabazleak eta txapeldunordeak.

Pilota txapelketako finala abuztuaren 13an jokatuko dute

I. ELIZAGOIEN

Udalak, bizi dugun egoera tarteko, abuztuaren 14tik 18ra ospatu ohi diren herriko bestarik ez antolatzea erabaki zuen. Horren ordez, udan bertze asteburu batzuetan ekitaldiak izanen direla iragarri zuen, horien artean, herri kirolak eta Haurraren Eguna.

Pilota txapelketak

Ekitaldi horiez gainera, Altxata elkarteak antolatuta, abuztuaren 13an, bigarren ortziralean, 18:00etan haurren Etxalarko Bestetako XXXIV. Pilota Txapelketako finala izanen dute eta Andre Mari Egunean, urtero bezala, meza eguerdian,12:00etan.

Gainera, herriko pilotari gazteen eskutik, Aitor Danboriena Memorialeko finala abuztuaren 28an, hondarreko larunbatean, jokatzekoa dute.

Ekitaldi guziak Covid-19aren hedapenak baldintzatuak izan daitezkeela nabarmendu dute eta, beraz, azken orduko egoera ikusirik, antolatzaileek aldaketak egin edota bertan behera uzteko aukera ere aztertuko dute.

«Lanik gogorrena belarra segaz moztea izaten zen» erran digu Allinkobordako Batistak.

Garai bateko udako kontuak hizpide adineko jendearekin

Aldi honetan Allinkobordako Batistaren testigantza bildu dugu belaz mozteaz eta bertze lanetaz, herrietako bestetaz…

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Azken urtetan gure ingurua eta berarekin lotutako eginbeharrak aunitz aldatu dira, etxeko lanak, baserriko lanak, baratzeko lanak, ongi pasatzeko moduak, herrietako bestak,... Dena hain abudo doanez, etxeko amatxi eta aitatxien eguneroko bizimodua hagitz urruti gelditzen zaigu.

Orduko ohiturak freskatu nahiko genituzke eta helburu horrekin hainbat herritarrekin solastu dugu beraien orduko bizipenak eta udako ohituren oroitzapenak berreskuratzeko. Hau da, erraterako, Allinkobordako Batistak kontatu diguna:

«Uda partean bi belar korte moztu behar izaten ziren; gero patata atera, eta atera ondotik arbia erein. Bertze lan bat ardiak menditik ekarri eta ilea moztea izaten zen, San Ferminetan ekartzen genituen.

Lanik gogorrena belarra segaz moztea izaten zen; orain badira segadorak, traktoreak baina orduan dena segaz egiten zen; segaz moztu gero belarrari belararraztuluarekin buelta eman eta sardearekin garraiatu eta meta egin.

Orduko garaiko lanak eta oraingoak ez dute zer ikusirik, dena aldatu da. Lehenago den-dena eskuz egiten zen; denbora aunitz behar zen gauza bat egiteko eta orain makina pila bat ditugu eta klase guzitakoak. Garai batean ilargiari aunitz begiratzen zitzaion, orain berriz ez hainbertze; hala ere azken boladan ematen du gehixeago ari garela begiratzen; lehenago belarra mozteko, belarra idortzeko, sasoi guztiek bazuten ilargiarekin zer ikusirik.

Lehenago koltxoiak ardi ilezkoak izaten ziren, barrenean ardiaren ilea izaten zuten; uda probexten zen koltxoiak urratu, ilea atera, makila batekin jo, ile hau harro-harro jarri eta berriz sartzeko; eguraldi ederrak horretarako probexten ziren. Etxe inguruan auzolanak egiten ziren, etxe bazterrak moldatu eta baita mendi bideak ere, orain ez zaie hainbertze kasorik egiten.

Bestatan gehien bat Bortzirietan ibiltzen ginen, Lesakara eta Arantzara oinez joaten ginen eta Bera eta Etxalarrera Tomas Rekondoren autobusarekin; honek autobus ttiki bat zuen eta han sartzen ginen herri horietara joateko. Normalean etxean ordubatak-biak aldean sartzen ginen. Herrian berriz denbora frontoian pasatzen genuen pilotan aritzen».

Arturo
arropa-denda
etxeko osagarriak | lentzeria
Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

ORBELA SENDERISMOA ATERPETXEA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK
DESINBERA
DESINSEKTAZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK · EGUR TRATAMEDUAK
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA
EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...
T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

Ainhoa Altzuguren Mitxelena
Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Lan aferak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.
BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa
Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN
Potentzia handiko laserra. Allyane metodoa
logurak
www.logurak.com
gaueko konfort-kuxina
Centro Prim
regina tolosaechepare

Kontzertuak eta kirol hitzorduak bestei seinalea egiteko

Hiru egunez eta segurtasun neurriak hartuta hainbat hitzordu antolatu ditu udalak

NEREA ALZURI

Aitzineko aldian iragarri bezala, besta egunen datak probestuz, kultur ekitaldiak antolatu ditu udalak. Hala, abuztuaren 13tik 15era, kultur eta kirol jarduerak izanen dira.

Abuztuaren 13an kantaldia

Abuztuaren 13an, ortziralean, Bankako Menditarren kantaldia izanen da plazan, 18:00etan.

Abuztuaren 14an herri kirolak eta bertso saioa

Abuztuaren 14an, larunbatean, herri kirol saioa izanen da, 17:00etan frontoian. Emakumezkoen Nafarroako Arpana Txapelketaren eta Gizonezko Bigarren Mailako Aizkora Txapelketaren kanporaketak jokatuko dituzte.

Ondotik, 19:30ean bertso saioa antolatu du udalak: Sebastian Lizaso, Amaia Agirre, Ekhine Zapiain eta Sustrai Colina gonbidatu ditu.

Abuztuaren 15ean pilota partidak eta mariatxiak

17:00etan pilota partidak hasiko dira. Hasteko, Bortzirietako gaztetxoen arteko pilota partida izanen da. Ekai Madariaga herritarra eta Oier Orbegozo, Beñat Etxabide eta Eukeni Etxenikeren aurka ariko dira. Ondotik, emakumezkoak ariko dira: Irantzu Etxebeste eta Olatz Ruiz de Larramendi, Olatz Arrizabalaga eta Naroa Agirreren aurka. Eta azkenik gizonezkoak, Alberto Ongai eta Aaron Arbizuk Unai Alberdi eta Ion Lazkoz izanen dituzte kontrario.

20:00etan, berriz, Txamukos taldeak emanaldia emanen du plazan.

Nafarroa eta Gipuzkoako 30 mendizale bildu ziren. P. IRASTORTZA

Beriain mendian izan dira elkarteko mendizaleak

P. IRASTORTZA

Malerrekan, Baztanen, Xaretan eta Leitzan egin dituzte mendizaleek orain artean hilabeteroko irteerak. Azkena, berriz, uztailaren 20an izan zuten Uharte Arakilen. Gipuzkoa eta Nafarroako 30 mendizale elkartu ziren lau ordu eta erdiko buelta egiteko. 30 gradutik goitiko eguraldi beroari itzalpetik egin zioten ihes, Teresita, Julian eta Juan arduradunek aukeratutako ibilbide eder eta gustagarriari esker.

Beriain mendian izan ziren eta, horrez gain, Jabier Belzaren eskutik, mendizaleek errota harri ola ere bisitatu ahal izan zuten.

Hilabeteko hirugarren astearteko hitzorduari hurbileko jatetxe batean egin zuten otordu gustagarriarekin eman zioten bukaera eta Tomas Erbitiren eskusoinuak girotu zuen bazkalondoan mahai ingurua. Erbitiri esker, gehienek dantzan akitu zuten eguna.

Hala ere, zuhurtziaz eta neurri guztiak betez jokatu zuten, urak bere bidea hartzeko elkar zaintzea ezinbertzekoa delako.

JAIONE - COXOTEGIA
Etxean egindako produktuak
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

Manterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

Jaurena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com
Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satelite bidezko instalazioak

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

MARGO IKASTAROA
2021-2022
Iciar Mikelperizena
(6 urtetik aurrera) Haurrak, gazteak eta helduak
INSKRIPZIOA ZABALIK - apuntatu zaitez!
Irailean hasiko gara
ELIZONDO
GAZTELU
BERA
Tel. 661 01 04 16

«Aktoreek izugarrizko lana egin dute, eurak dira protagonistak»

EKAITZ BERTIZ APEZETXEA SUNBILLAKO GAZTEA

Konfinamenduan film bat egitea bururatu zitzaion Ekaitz Bertiz sunbildarrari eta ideia burutik paperera eta paperetik pantailara eraman ahal izan du lagun eta familiakoen laguntzaz

M. PETRIRENA

Zinema munduarekiko zaletasuna eta laguntasuna uztartuz, *Eustakio* filma plazaratu du Ekaitz Bertiz Apezetxeak (Sunbilla, 2003). Otsailean hasi eta ekainera bitarte horretan aritu da buru-belarri baina emaitzak merezi izan du, «txukuna» izan delako. Egindakoarekin kontent dago, eta argi du bide hori duela gustuko. Hortaz, «heldu den ikasturtean zinema munduarekin lotutako ikasketak» hasiko ditu. Bitartean, ordea, ez da esperoan egonen: «*Eustakio*ren bigarren atala ateratzeko gogoa dudanez istorioa idazteari ekinen diot laster».

Zer da 'Eustakio'?

Azken hilabeteetan egin dudan filmaren izenburua da. Nire kuadrillako kideekin, hainbat lagunekin, lehengusu eta familiarekin atera ahal izan dut proiektua. Eurek dira pelikulako protagonistak. Ordubete eta berrogei minutuko film luzea da.

Nondik heldu da izenburu hori?

Aunitzek galdetu didate. Ikarazko pelikula bat izanik, beti izan dut buruan *attak* ttikitan nola erraten zigun gaizki portatzen ginelarik anaia eta bioi: 'Eustakio zakuarekin etorriko zaizue eta eramanen zaituzte'. Beti irudikatu izan dut mitologiako pertsonaia gisa eta horregatik filmari izen hori eman diot. Pelikulako gertakizunekin zerikusia du noski, baina jakin ahal izateko, ikusi beharko duzue.

Nola bururatu zitzaizun ideia?

Konfinamendu egoera zela eta, joan den neguan lagunekin film bat grabatzea bururatu zitzaidan. Lehengusuekin egin nuen lehenik eta lagunei erakutsi ondotik, ea eurekin bat egitea zer iruditzen zitzaien aipatu nien. Batzuek segituan baiezkoa eman zidaten, bertze batzuek, aldiz, hasieran dudak eduki arren, esperientzia polita izanen zelakoan proposamena onartu zuten azkenik. Gauzak honela, filmaren gidoia prestatzeari ekin nion. Ikarazkoa eta misteriozkoa izanen zela argi nuen, eta horregatik hainbat elementu traumatiko sartu nizkion testuari; urkaketak, desagertzeak...



Aitor Etxalar.

Lorena Mariñelarena.

Ion Mikel Gaztelumendi.

Garazi Etxalar.

Anne Etxarte.

Mikel Mariezkurrena.

Eramateko janaria astelehenetik ortziralera
Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

Nolakoa izan da prozesua?
Grabatzen hasi aitzinetik, protagonistekin elkartu nintzen; gidoia leitu genuen, pelikula zeri buruz zihoan jakiteko eta bakoitza bere pertsonaiaren barrenean sartzeko. Otsailean hasi ginen grabazioarekin, eta maiatzean akitu genuen. Libre genuenean gauzatzen genuen proiektua (asteburuetan, Aste Santuko oporretan...). Denbora probestu ahal izateko, ez genuen ordenean grabatu filma; nahastuta egin genuen. Modu honetan, lagunak ez ziren grabazio egun guztietara etorri behar, bakoitzari tokatzen zitzaion egunean baizik. Hala ere, nahiko erraz lortu genuen, koronabirusaren egoera honi esker ez genuelakoz plan handirik. Denbora aurreztu ahal izateko, grabatutako zatiak ordenagailuan editatzen nituen grabazio egunaren ondotik (grabazio batetik bertzera aste bat edo gehiago pasatzen zelakoz normalean). Dena den, kamerak itzali ondotik, bertze hilabete pasa egon behar izan dut ordenagailuaren aitzinean gauetan filma akitu bitartean; planoak moztu, elkartu, irudiari kolorea moldatu, soinu efektuak jarri, musika... Azkenik, ekainaren 20an estrenatzea lortu genuen Doneztebeko zineman. Bertara, protagonistak, lagunak eta familia hurbildu ziren.

Zailtasunik izan zenuten?
Nire sorpresarako, nahiko ongi atera genuen filma, arazo handirik gabe. Ikarazko istorio bat kontatu nahi nuenez, negu ilunean kokatu nahi nuen filma, eta horregatik hostoak arboletan atera baino lehen akitu behar genituen grabaketak; hostoak ateratzen hasiak ziren akitu orduko, baina hau itxaropen sinbolo bihurtzen da protagonisten ikara eta kezkei dagokionez. Bertzetik, aktoreei dagokionez, sekula antzerkirik egin gabe, kamera baten aitzinean jarri gabe... Izugarrizko lana egin dutela azpimarratu beharra dago. Emaitza txukuna izan da.

Ekaitz Bertiz sunbildarra.

Zein da filmaren argumentua?
Sunbillan kuadrilla bateko kideak kezkatzen hasiko dira mendian pertsona bat urkatua ikusten duten momentuan, baina arazo bat daukate: ez dakite nor den... Momentu horretatik aitzinera geroz eta gertakizun arraroagoak bizi-ko dituzte, gauzak ez direlakoz uste duten bezalakoak... Nora (Garazi Etxalar), Danel (Mikel Mariezkurrena), Laia (Anne Etxarte), Aitor (Ion Mikel Gaztelumendi), Roxane (Lorena Mariñelarena), Ethan (Aitor Etxalar) eta Irati (Olatz Mutuberria) izanen dira euren inguruan gertatzen ari diren misterioak eta ekintza traumatikoak argitzen saiatuko diren pertsonaiak. Dena den, bertze hainbat aurpegi ezagun agertuko dira, horien artean, Garazi (Aroa Bertiz), Iraitz (Aritz Bertiz), Joana (Garazi Santesteban), Maialen (Amaia Arriaga)... eta ikuslearen sorpresarako utziko ditudan bertze batzuk. Filmaren trailerra ERRAN.EUS atarian dago ikusgai.

Filmeko irudi bat.

Aitzinera begira, zein da zure asmoa?
Etorkizun hurbilean, zinemari buruzko ikasketak egiteko intentzioa dut; aurten izanen da nire lehen urtea. Orain arte, nire kabuz ikasi dudanarekin aitzinera atera izan ahal ditut filmak, beti izan baitut neure burua gainditzeko eta geroz eta lan ederragoak egiteko desioa. Modu honetan, eta nire lagunek nahi izanez gero, *Eustakio*ren bigarren atala ateratzeko gogoa daukat, beraz, istorioa idazteari ekinen diot laster.

BORDALARREA
Gure Haragia
Nuestra Carne
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

Lizun
GAZTANDEGIA
Sunbilla · Tel: 948 450 862
IDIAZABAL

Fernando Etxeberria egilea, 'Ezkurra herri paregabea' liburua eskuetan. TTIPI-TTAPA

«Seme-alabentzat ama bezala da niretzat Ezkurra: paregabea»

FERNANDO ETXEBERRIA 'EZKURRA HERRI PAREGABEA' LIBURUAREN EGILEA

Sorterria maite du Etxeberriak eta maitasun horrek Ezkurrari buruzko datuak bilatzera, biltzera eta argitara ematera bultzatzen du. Aurkeztu berri du bere azken liburua

AITOR AROTZENA

Fernando Etxeberria Mariezkurrenak (Ezkurra, 1942) *Ezkurra herri paregabea* argitaratu berri du. Ez da sorterriari buruz idatzi duen lehen liburua, lehendik ere Ezkurrari buruzko istorioak, argazkiak, artikuluak, jaiotza-agiriak... ikertu, bildu eta paper gainean jarri baititu, Jakin-mina sortzen dio Ezkurrak eta aurrera begira ere, ikertzen segitzeko gairik ez zaiola falta onartu digu.

'Ezkurra herri paregabea' liburua idatzi berri duzu... Zer topatuko du irakurleak liburu honetan?

Batez ere jaio nintzen herriari diodan maitasuna, han eman nituen lehen urratsak eta urte askoren ondoren, itzuli egin nintzen, udaletxera sartzeko zortea izan nuen eta bertan, udal artxiboan, benetako altxor historikoa aurkitu nuen. Liburua irakurtzen duenak ikusiko eta ikasiko du Ezkurra herriaren jatorria eta garapen historiko oso interesgarria.

Ez da zure lehen liburua, lehengoak ere sorterriari buruz... Nola topatzen dituzu hain herri ttikiari buruzko hainbeste gai, albiste, argazki...

Benetan harrigarria da Ezkurrari buruz dagoen datu mordoa, ez bakarrik udal artxiboan, baita Iruñeko artxibo orokorrean, elizbarrutian eta mormoien artxibo orokorrean ere. Argazki gehienak herritarrek emandakoak dira eta beste asko egin nituen Ezkurrako korrespontsal gisa Ttipi-ttapara bidaltzeko urte askoan.

Ezkurra herri paregabea dio izenburuak... Zertan iruditzen zaizu parekorik ez duela? Edo gaztelaniaz itzulia duzun bezala, 'villa de ensueño', zergatik da zuretzat?

Bistan da nire herria bertako izaki gisa maite dudala, eta, beraz, seme edo alaba batek bere ama ikusten duen bezala ikusten dut: paregabea. Bi urtez hainbat artxibo kontsultatu nituen, eta arretaz irakurri nituenean konturatu nintzen nire herria, zalantzarik gabe, alderdi askotan ezin zela konparatu beste bakar batekin ere ez.

Errepaso zabala egiten diozu herriko hainbat, gai, arlo, historia, albisteri... zein da gehien harritu zaituena edo ustekabean hartu zaituena?

Bereziki harritu ninduen jauntxoen historiak. Bada etxe bat, Hamarrendegia, jendeak Casa-Palacio, 'jauregi-etxe' deitzen duena. Arrazoia ez nekien eta udal artxiboa kontsultatzean aurkitu nituen han bizi izan zen familiaren existentziari buruzko datu kontaezinak. Auzotarrekin etengabeko liskarrak izaten zituzten, beraien basailu edo morroitzat hartzen zituzten. Historiaurreko monumentu ugari ere aurkitu nituen, 70 azienda borda baino gehiago ere zenbatu eta dokumentatu ditut, hainbat mendetako herritarren bizitza azaltzen dutenak. Arrosarioko Kofradiaren sorrera eta garapena ere garrantzitsua da, bizilagun gehienak bazkide baitziren. Halaber, harritu egin ninduten Raquel Idoatek 1840 eta 1874 artean Ezkurratik Amerikarako emigrazioari buruz egindako liburuan aurkitutako datuek. 34 urtez 158 bizilagunek zeharkatu zuten putzua. Sinestezina dirudi, baina horien guztien datuak bildu ditut.

Oraindik gelditzen zaizu beste libururen baterako materialik Ezkurran?

Oraindik jaiotza agiriei buruzko datu gehiago jakitea falta zait, XVII. eta XVIII. mendeetako asko falta zaizkidalako. Gainera, nire lagun Martin Urrutiaren iradokizunari jarraituz, alfabetoaren arabera ordenatuko ditut, kontsulta errazago egiteko. Ollingo burdinolen eta meategien historian gehiago sakondu nahi nuke, baina material horiei buruzko ezagutza tekniko gutxi daukat, eta espezialista baten laguntza beharko nuke. Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet liburua eskuratu duten herritarrei. Irakurtzen dutenean, herri zoragarri honetako kide izateaz harro sentituko dira. Eskerrak David Mariezkurrenari eta Leitzako Xukuni ere, prestatzen laguntzeagatik eta Ttipi-ttapari, maketazio eta argitaratze lanengatik.

Untxalo, Zapiain eta Iguaran ariko dira kantari. BERTSOA.EUS

Abuzturako hainbat ekitaldi antolatu ditu Donezteb eko udalak

Osasun egoera tarteko, azken orduko aldaketak izanez gero sare sozialen bidez jakinaraziko dutela nabarmendu dute

M. ERDOZAIN

Abuzturako agenda bete ekitaldi antolatu ditu udalak. **Abuztuaren 7an** Santa Luzia plazan 19:30ean Txamukos Mariatxiak taldearen emanaldia izanen da. **Abuztuaren 14an** 12:00etan eta Santa Luzia plazan bertso saioa izanen da. Alazne Untsalo, Oihana Iguaran eta Ekiñe Zapiain bertsolariak ariko dira eta Malerrekako Bertso eskolako kidea den Irati Agesta gai-jartzaile ariko da. 20:30ean, berriz, *Euskañolitis* bakarrizketa izanen da Oihan Vegaren eskutik. Ekitaldiek **abuztuaren 21ean** izanen dute segida. 19:00etan Zirika Zirkus taldearen emanaldia izanen da. Azkenik, **abuztuaren 28an** goizez eta arratsaldez Laxoaren Eguna ospatuko dute. Partidak eta egitarauaren nondik norakoak sare sozialen bidez ikusteko aukera izanen da.

Azken bolada honetan bizitzen ari garen osasun egoera dela eta, antolatutako ekitaldietan aldaketak gerta daitezkeela jakinarazi nahi dute udal arduradunek. Beraz, sare sozialen bitartez jarraipena egitea aholkatu dute.

Kontsumitzaileen bulegoa irekita abuztuaren 20an

Iratxe kontsumitzaile elkarteak eskaintzen duen zerbitzua abuztuaren 20an gurean izanen da. Doako bitartekaritza eta laguntza juridiko hau erabili ahal izateko herritarrek aitzinetik 948 45 17 46 telefonora deitu eta ordua eskatu behar dute.

Abuztutik irailera bi pertsona ariko dira Leurtzan

Abuztuaren 1etik irailaren 15era Leurtzan jasangarritasun-agente gisa aritzeko bi lagun kontratazeko deialdia egina zuen Cederna Garalurrek. Bisitariei harrera egiteko, ingurunea errespetatzeko... ardura izanen dute bi langileek.

Uztailean ere izan dira campusak. UTZITAKOA

Abuztuaren 9tik 13ra futbol campusa izanen da Donezteben

M. ERDOZAIN

Donezteb e Futbol Taldeak udalaren laguntzaz antolatuta, abuztuaren 9tik 13ra futbol campusa izanen dute herrian. 09:00etatik 13:30era bilduko dira eta hainbat jarduera izanen dituzte. Parte-hartzaileek baloi bat jasoko dute oparitzat. Campusa 2016-2017 artean sortutako neska-mutilei bideratua da eta izena emateko edo informazioa jasotzeko *doneztebefutboltaldea@gmail.com* helbidera idatzi edo 608 73 70 38ra deitu behar izanen dute. Parte hartzeko Donezteb eko jokalariek 58 euro eta gainerakoek 68 ordaindu beharko dituzte.

2019ko festetan haurrek eskaini zuten dantza saioa. ARTXIBOA

Ekitaldiak antolatu dituzte abuztuaren 14an eta 15ean

Larunbatean haur eta gaztetxoei zuzendutako ekitaldiak izango dira eta igandean Mendialdeko azoka ibiltaria

TTIPI-TTAPA

Mendialdeko azoka ibiltaria Areson egitekoa da abuztuaren 15ean, igandean. Hori aitzakiatzat hartuta, aurten festarik izango ez bada ere, asteburuan zehar ekitaldiak antolatu dituzte. Herriko hainbat eragile bilduta adostu dituzte larunbaterako eta iganderako ekitaldiak, dena den, une horretako osasun egoeraren eta indarrean dauden arauen menpe egongo dira guztiak.

Abuztuaren 14an, larunbatean, goizean kalejira egiteko asmoa dute eta segidan umeentzako zirku tailerra antolatu dute. Arratsaldean guraso elkarteak jokoak eta merienda antolatuko ditu. Gero, herri kirolak izango dira Ibarrako soka tira taldearen eskutik eta bukatzeko, herriko gaztetxoek kontzertua eskainiko dute plazan.

Abuztuaren 15ean, Mendialdeko azoka ibiltariak geldialdia egingo du herrian. Iluntzean umeen dantza saioa izango da, Aresoko ingurutxoa eskainiko dute baita azken hilabeteetan ikasi dituzten beste dantzak ere. Eguna bukatzeko Demode Quartet taldearen kontzertua izango da.

Irailean mendi martxa antolatzea aztertzen ari dira

TTIPI-TTAPA

Iraileko lehenbiziko igandea egun berezia izan ohi da aresoar zein bisitarientzat, ohitura bihurtua baita data horretan mendi martxa egitea. Pasa den urtean ez zen egiterik izan hamahirugarren edizioa izango zena baina aurtengoan badirudi aukera izango dela. Udaleko ordezkariak, Kirolmank Mankomunitatekoak eta herritarrak hitzordua aurrera ateratzeko aukerak aztertzen ari dira. Guztien artean hartzen dituzten erabakien berri irailaren 2an argitaratuko den 789.aldizkarian jasoko duzue.

Herriko kontuak astinduko dituzte Lujanbiok eta Maiak.

Abuztuaren 13ko bertso saioak goxatuko du herriko festen falta

TTIPI-TTAPA

Amabirjin egunaren inguruan festetan murgiltzeko garaia izanen zuten Goizuetan, baina aurtengoan ere ez da posible izanen. Ez-festek inguruan utzi dituzten ondorioak ikusita, Goizuetako udalak ekitaldi ofizialik ez antolatzea erabaki du eta «egun hauetan zentzuz eta arduraz jokatzeko deia» egin die herritarrei.

Dena den, ekainean hasitako martxari eutsi eta beharrezko neurriak hartuta kulturaz goza litekeela erakutsiz, udako kultur ekitaldiek izanen dute datozen egunetan ere tokia. Bertso saioa antolatu dute abuztuaren 13rako, ostiralerako. 19:00etan hasiko da eta formatu bereziko emanaldia izanen da. *Bertso txiki, infernu handi* izenburupean Jon Maia eta Maialen Lujanbio bertsolariak ariko dira kantuan eta aurretik herrian grabatutako irudiei ariko dira bertsotan. Herriko kontuak astinduko dituzte errima eta doinuekin jolasean. Antolatzaileek luzatu dute gonbidapena: «orain arte bezala elkar zainduz, segurtasun guziarekin eta errespetuz, uda honetan loratu gaitezen».

Ur-hornidura sarean hobekuntzak eginen dituzte

TTIPI-TTAPA

Azken urteetan ur-hornikuntza sarea hobetu nahian ari da udala. Gaur egungo datuak kezkagarriak dira: deposituetatik eguneko 309.000 litro ateratzen dira eta horietatik 75.000 litro dira kontsumitzen direnak, beste guztia ur-ihesetan joaten delarik.

Egoerari irtenbidea eman eta Nafarroako Gobernuak 2027rako ezarritako helburuak betetzeko, ezinbestekoa da ekintza plan bat edukitzea. Horretarako, Eunate ingenieritzari hornidura sarearen ekoauditoria bat egitea eskatu zaio. Sarearen egoera zein den eta ezarritako helburuak betetzeko zer egin behar den aztertuko du. Lanek, 5.808 euroko aurrekontuarekin, azaro hasierarako bukatuak behar dute.

Uraren presioa erregulatzeko

Uraren presioa erregulatzeko instalazio bat ere jarriko da Txino auzoan, sarean dabilen ura kontrolatu ahal izateko. Apezetxea anaiek abuztuan eginen dituzte lanak 18.475,42 euroko aurrekontuarekin.

Autobus zerbitzuan hobekuntzak abuztutik aurrera

ALSA konpainiako autobusek zerbitzua eskaini ahal izanen dute eta ordutegi batzuk moldatuko dituzte

TTIPI TTAPA

Sinadura bilketaren, Parlamentuko lan saioaren eta hamaika bileren ondotik, Nafarroako Gobernuarekin adostasunera iritsi da udala eta zerbitzuan beharrezkoak diren hobekuntzak egiteko konpromisoa hartu du. Mikel Zabaleta alkateak azaldu duenez, aurrerantzean ALSA konpainiako autobusak ere ibili ahalko dira Leitzan eta horretaz gain, ordutegi batzuk ere moldatuko dira zerbitzua herritarren beharretara egokitzeko.

Aldaketa horiek uztailean zehar aurrera eramateko konpromisoa hartu zuen garraio publikoko zuzendari orokorrak eta okerrik ez bada, uztail bukaeran prest izanen dute ordutegi berria. Udalari zerbitzu berriaren zehaztapenak ematean informazioa herritarren eskura jarriko dutela argitu du alkateak. Abuzturako, beraz, martxan egonen dira autobus zerbitzuko hobekuntzak, garraio publikoa indartuz.

Agerraldi jendetsua egin zuten.

Normalean baino jende gutxixeago ibili da aurten. E. IRAOLA

Irailaren 5era arte irekita egonen dira udal igerilekuak

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 19az geroztik ari dira zerbitzua eskaintzen igerilekuetan eta irailaren 5era arte zabalik egonen dira, goiz eta arratsaldez. Hala ere, abuztuaren 11n, herriko jai-eguna izanik, itxiko dituzte.

Dena den, eguraldiaren menpe ere badago zerbitzua. 24 orduko aurrerapenarekin tenperatura maximoa 18 gradu edo gutxiagokoa eta % 80ko prezipitazio aukera edo gehiago iragartzen bada, igerilekuak ez irekitzea erabaki dute. Hala, Miren Latasa Anikote enpresako arduradunak eman du datua: «ekainaren 19tik uztailaren 19ra bitarte, hamaika egunetan itxi behar izan ditugu igerilekuak».

Sarreren salmenta bidea ere aldatu dute aurten eta ez dute bonurik eskaini. Eguneko sarrerak erosteko bi aukera dituzte: *leitza.reservas24h.es* web orrian edo igerilekuko harreran. Interneten egunero goizeko zortzietan jartzen dituzte sarrerak salgai. Arduradunek sarrerak online erostea gomendatu dute, harreran jende pilaketak ekidin eta sarrerak eskuragarri dauden edo ez jakinen dutelako.

«Memoria historikoa bizirik mantentzeko tokia da Amaiur»

IXABEL ALEMAN IRUNGARAI AMAIURKO ALKATEA

Amaiurko Gudak 500 urte beteko ditu heldu den urtean, eta amaiurtarrak dagoeneko urte berezi honetarako prestatzen hasiak dira. Abenduaren 13an 'Noain 1521' ikuskizuna izanen dute herrian

R. OSKARIZ | AMAIUR

1512an Fernando Katolikoak Nafarroako Erresuma konkistatu ondotik, hiru aldiz saiatu ziren Nafarroako errege-erreginak erresuma berreskuratzen, azken saiakera duela 500 urte. 1521eko Noaingo Guda izan zen horren ondorioa, nafarrek galdu zutena, eta bizirik ateratakoak Amaiurko Gazteluan gotortu ziren. Urtebete iraun zuten bertan, Frantziako armadaren laguntzaren zain, baina frantziarrak ez ziren inoiz agertu. 1522ko uztailaren 13an Amaiurko setioa hasi zuten, eta 19an amore eman zuten bertan zeuden 200 nafarrek. Abuztuaren 11n konkistatzaileek lehergailuak paratu zituzten Amaiurko Gazteluan, eta bailara osoan entzun zuten leherketa. Gertaera hauek «Nafarroko Erresumaren independentzia berreskuratu nahiaren ikur» bihurtu zuten Amaiurko Gaztelua.



Amaiurko Gaztelua duela 500 urte. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

Nola eragiten dizue honek?

Guk gure bizitza normal egiten dugu, baina ezin dugu ukatu bizi garen tokian bizi garela. Honek jende aunitz etortzea suposatzen du, batzuendako bista ederrak dituen tontor ttiki bat bertzerik ez da, baina Euskal Herriko jende aunitzendako ikur bat da. Gaztelua eta bertan gertatutakoa ezagutu nahi dute. Memoria historikoa bizirik mantentzeko tokia da.

Hainbat ekitaldi prestatzen hasi zarete heldu den urtera begira…

Bai eta lehenbizikoa Arizkunenean abuztuaren 7an aurkeztu genuen *Batallon Amaiur* erakusketa da, urrira arte ikusgai egonen dena. Duela 100 urte gertatutakoa biltzen du; hainbat historialari Amaiurreko Guda aztertzen hasi ziren eta Diputazioarekin oroitarri bat paratzea erabaki zuten. Orduan eztabaida hasi zen, batzuk nafar hauek Gaztelako Erresuma traizionatu zutela salatzen hasi ziren, eta testuinguru tirabiratsu horretan monolitoa dinamitatu zuten. Gerra Zibila etorri zen gero, eta euskal gudarostearen barnean zeuden batailoietako bati Amaiur deitu zioten, askatasunaren sinboloa bihurtu baitzen. Hau dena ekarri nahi izan dugu erakusketara.

Honez gain, hainbat kontzertu antolatzen ari da Euskal Herriko Txistulari Elkartea eta duela hilabete batzuk hemen bat egitea proposatu ziguten. *Noain 1521* izena du ikuskizunak, eta guk gustura hartuko dugu herrian, Noaingo Gudaren segida izan baitzen Amaiurkoa eta bi gertakariak lotuak daudelako. Abuztuaren 13an izanen da kontzertua, 21:00etan herriko belai batean. Segurtasun neurri guztiak errespetatuko ditugu, distantziak mantenduz eta maskararekin soinean. Sarrerak salgai daude Amaiurko museoan, eta erosten dutenek museora sartzeko %10eko deskontua lortuko dute. Ikuskizun ederra izanen da eta jendea etortzera animatzen dugu!

Aurten Ama Birjineko bestak ospatu ezin badira ere, zerbait eginen duzue?

Bai, aipatutako txistularien kontzertua besten seinalea izanen da. Honez gain, abuztuaren 15ean, Ama Birjinaren egunean, Baztan Kantuz ekimena herrian izanen da goizean eta Argitsu elkarteak antolatu-

BRIKO BAZTAN, SL
Drogeria · Garbiketa produktuak
Ferretaria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta maletak
Etab.
T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan
• Kontabilitate zerbitzuak
• Zerbitzu fiskalak
• Lan-aholkularitza
• Aholkularitza juridikoa
• Herentzia eta Testamentuak
• Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
• Datuen babesa
• Mugaz bertze aldeko aitorpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)
www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com
Baztanberri plaza, 6 · 31700 ELIZONDO · T. 948 581 300 · F. 948 580 648
Eztegara pasealekua, 22-1 · 31780 BERA · T. 948 631 108
Eliza Kalea, 22 · 31740 DONEZTEBE · T. 948 450 395 · F. 948 451 304

tako artisauen feria ere izanen dugu. Horiek izanen dira gure aurtengo ez-bestak, osasun egoerak ez baitu gehiagorik egiten uzten.

Amaiurko museoaren kokalekua behin-behinekoa da oraingoz. Urteurrena aprobetxatuz, lekuz mugitzea pentsatu duzue?

Duela urte bat ireki genuen museoa eta Etxeberria etxean dago momentu honetan, hau da, etxe partikular baten beheitiko solairuan. Hala ere, hasieratik bagenekien museoa ttiki gelditukо zela, hor dauden piezak azkeneko 15 urteetan aurkitu denaren zati ttiki bat bertzerik ez direlako. Covid-19a ailegatu aitzinetik anbizio handiko proiektu bat bagenuen, eliza ondoko lur eremu batean, herriko sarreran, bisitari zentro bat eraikitzeko. Baina koronabirusarekin proiektua birplanteatu behar izan genuen. Kultur Ministeriotik 300.000 euroko dirulaguntza jaso genuen eta duela gutxi Agerrea etxea erosteko aukera sortu zitzaigun, herriko plazan dagoen etxe handi eta dotore bat. Teilatua konpondu beharko dugu, arras zaharra dagoelako, eta gero dirulaguntza gehiago lortzen saiatuko gara. Hurrengo urtean izanen da 500. urteurrena, eta guk ez dugu bertze 500. urtebetetzerik biziko. Hortaz, administrazioan gaudenok gure memoria historikoa bizirik mantentzen laguntzeko aprobetxatu behar dugu. Etxearen erosketa duela hilabete bat sinatu genuen eta ekitaldi ttiki batekin ospatu genuen. Azken 15 urteotan indusketa-lanetan ibili dira gazteluan Aranzadi Zientzia Elkartekoak, eta ordutik orain arteko alkate guztiak elkartu ginen, bat izan ezik. Pedro Mari Esarte ere han izan zen, Amaiurko Gazteluko historiari buruz aunitz idatzi duena. Bertso pare batekin, agurra dantzatuta eta aperitiboarekin, ofizialki aurkeztu genuen kokaleku berria herritarren aitzinean.

Amaiurko azken urteetako alkateak Agerrea etxearen atean, museoaren kokaleku berria izanen dena. UTZITAKOA

«ORAIN DUGU GAUZAK EGITEKO ETA URTEURRENA OSPATZEKO GARAIA»

Zein zerbitzu eskaintzen dituzue bisitariendako?

Museoa egunero irekitzen dugu, astelehenetan izan ezik, eta informazio guztia *amaiur.eus* web orrian dago eskuragarri. Indusketa-lanetan berreskuratutako material arkeologikoak daude bertan ikusgai. Gaztelura bisita gidatuak ere egiten ditugu, eta arras interesgarriak dira.

Gaztelu eta museoarekin, gero eta jende gehiago ibiliko dira herrian. Nola kudeatzen duzue turismoa?

Baztango Udalak plataforma berri bat martxan jarri du turisten mugimendua kontrolatzeko. Erratzun arazo handiak zituztela ikusita eta hemen berdina ez gertatzeko, Amaiurko Gaztelua eta Xorroxingo Ur-jauzia bisitatzeko aldez aurretik aparkalekua eta sarrera erreserbatu beharko da, edukiera mugatuarekin. Erreserba Internet bidez egin daiteke eta oraingoz debalde da, proba egiten ari garelako. Hasierak ez dira errazak eta baliabideak ere falta ditugu oraindik, hortaz jendea despistatuta ibili da eta zalantzak izan dira herritarren artean, baina aldaketak daudenean normala da. Guk ez dugu oztoporik paratu nahi, elkarbizitza erraztu nahi dugu, herritarrak eta kanpotik etortzen direnak ongi moldatzea eta batak bertzeari oztoporik ez egitea. Asmoa ona da eta zaila bada ere momentuz ongi doa.

Arte erakusketak bisitatzeko aukera irailera bitarte

Pintura eta eskultura zaleek izanen dute gozatzeko tarterik uda honetan

TTIPI-TTAPA
Elizondo, Erratzu eta Arizkun artelanez blai egonen dira Artearen ibilbideari esker aurtengo udan. Erakusketak irekita daude bisitari guztientzat.

Elizondon
Jose Luis Alzugaray Galarregiren pintura erakusketa urrira arte ikusi ahal izanen da (Jaime Urrutia karrika, 1) asteazkenetik ortziralera 18:30etik 20:30era. Asteburuetan arratsaldez ez ezik, goizez ere, 12:00etatik 13:30era, bisitatu ahal izanen da. Alzugarayren lanak ez ezik, Fernando Gorostidirenak (Jaime Urrutia, 15) eta Tomas Sobrinorenak (Arizkunenean) ere bisitatu ahal izanen dira. Astegunez 18:00etatik 20:30era (Sobrinorena 21:00 arte) eta asteburuetan 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:30era (Sobrinorena 21:00 arte) ikus daiteke.

Arizkunen
Arizkunen Teresa Lafraguaren margolanen erakusketa eta Santxotena parke museoa abuztuaren 31ra arte (astegunez 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era eta asteburuetan goizez) irekita egonen da eta Xabier Soubeletena irailaren 15era arte luzatuko da (ortzegunetik igandera 12:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara).

Erratzun
Iniestaren koloreak izanen dira Arizkungo pizgarriak. 'Argia' erakusketa abuztuaren 31ra arte ikusi ahal izanen da 18:30etik 20:30era.

Xubelet eta Xamanat abuztuan Arraiozen eta Zigan

TTIPI-TTAPA
Xabier Xubeleten eta Xamanaten eskutik kontzertuak izanen dituzte abuztuan Arraiozen eta Zigan. Hilaren 7an, lehenbiziko larunbatean, Arraiozen dute hitzordua 20:00etan eta abuztuaren 21ean, larunbatean, ordu berean Zigan bilduko dira.

Horrez gain, Xabier Xubeletek ortzirale arratsaldetan ibilaldi bohemioak egiten ditu Arizkunen.

Parte-hartzaileek 16:30ean elizatik abiatu, erakusketa bisitatu, ibilaldia egin eta bertako kondaira ezagutzeko aukera izanen dute zazpi euro eta erdiren truke.

Artisau azokak abuztuko eta iraileko asteburuetan

TTIPI-TTAPA
Baztango artisauek eta Baztango Zaporeak elkarteek antolatuta, abuztuko eta iraileko larunbatetan, hau da, abuztuaren 7an, 14an, 21ean eta 28an eta irailaren 4an, 11n, 18an eta 25ean, bertako produktuen azokak izanen dira Elizondoko plazan.

Goiz osoz, zehazki 10:00etatik 14:00etara, bertaratzen den orok bertako ekoizleek egindako lanak ikusi eta erosi ahal izanen ditu: jakiak, xaboiak, osagarriak, ukenduak...

Udaren ondotik, azoken egutegia urte osora zabalduko da eta urrira bitarte larunbatero izanen den arren, azaroan bi egunez baino ez da izanen. Egunak hurbildu ahala, emanen da horien berri.

OTEIZA
ARKITEKTOAK
665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com
Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)
Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia
DESIGNER CERTIFIED PASSIVE HOUSE DESIGNER
oteizaarquitectos

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua
Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...
T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

JOSEPHINE'S ENGLISH
Bertako irakaslea
TALDEAK: HAUR, GAZTE eta HELDUAK
Lehen hezkuntza 5. mailatik goiti
DBH eta Batxilergoa (B1 eta B2)
Web orrien itzulpenak
MATRIKULA IREKIA: abuztuaren 23ra arte
Christina Irigoyen
M. 637 176 572 · Santiago, 42 Elizondo
josephinesenglish@gmail.com

inelsa ZENER ascensores igogailuak
Igogailuen instalazioak.
Multimarka mantentze-lanak eta erreformak.
T. 948 232 400
www.inelsazener.com

Il Giardino Armonico eta Labeque ahizpen kontzertua 23an

Ravel jaialdiaren karietarat, herrian bizi diren piano-joile ezagunak orkestrarekin ariko dira abuztuaren 23an elizan

JEAN LOUIS BESSONART

Nahiz eta egoera sanitarioa ez den hoberena, musikaz eta kanta ederrez gozatzeko aukerak eskainiak dira gure elizan edo Larreko kulturgunean. Azkenekoei dagokienez, uztailaren 28an iragan beharra zen Uria Monzon opera kantari ospetsuaren emanaldia elizan, Ravel Festibalaren programazioan. Eta abuztuaren 9an, Donostiako Musika Hamabostaldiak antolaturik, herriko kultur sailaren eta Senpereko Kultur eta Ondare elkartearen laguntzarekin, goi mailako kontzertua egitekoa zen, 20 kantari eta 10 musikarik Jean Sebastien Bachen obrak eman beharrak zituzten.

Kontzertu bikaina

Bertze hitzordu bikain bat abuztuaren 23an izanen da elizan, 21:00etan, Ravel Festibalaren karietarat. Katia eta Marielle Labeque piano-joile ahizpak ariko dira eta hauekin betan Il Giardino Armonico orkestra.

Nola ez aipa Hendaiako Labeque ahizpak, orain Senpereko Tontoloa baserria dute auditorio edo musika gune. Munduko oholtza ezagunenetan beren talentua erakutsia dute aspaldi honetan. Haatik, badakite euskal musikari lehentasuna ematen, eta noiztenka Kalakan taldearekin eta Thierry Bizkari kantariarekin lan egin dute. Azkeneko ikusgarrian, Joseph Haydnen 43. sinfonia, *Mercure* deitua, plazaratuko dute. Horretarako erreserbak egiten ahal dira Euskal Herriko turismo bulegotan eta nafarrak ongi etorriak izanen dira.

J. L. BESSONART

Eskulangileen merkatua astearteetan

Bi hilabete hauetan, astearte goiz guztiz, sortzaile, artista edo artisau andanak eskuz eginiko ekoizpenak aurkeztuko dituzte Postako plazan. Altxor baten parekoa da merkatua, zernahi gauza deskubritzen ahal da, ahantzi gabe saltzaile horiek beren lanetik bizi direla. Bederen bisita baten egitea zor diegu.

Dantzak, herri kirolak eta patata tortilla lehiaketa abuztuaren 21ean Urdazubin

TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 7ko Burdinaren Egunari segida emanez, eta udako ekitaldiak borobiltzeko, abuztuaren 21ean, larunbatarekin, euskal dantzez, herri kirolez eta patata tortillak janez gozatzeko aukera izanen da herrian.

18:00etan euskal dantzen emanaldia izanen da eta ondotik, 19:00etan, herri kirol saioa hasiko da. Patata tortilla lehiaketa ere egitekoa da eta, 20:30ean, lehiaketara aurkeztutako tortillak dastatzeko aukera izanen dute bildutakoek.

«Kontxak eta ligak irabazita taldekideekin bizitakoa ahaztezina da»

IKER MARIZKURRENA IMAZ SUNBILLAKO ARRAUNLARI OHIA

38 urterekin arrauna uztea erabaki du Marizkurrenak. Hamabi urte eman ditu Hondarribia Arraun Taldean eta hiru Kontxa eta zenbait liga ez ezik, lagunarteko oroitzapenak beretako gorde ditu

MAIDER PETRIRENA

Aitzinetik arraunarekin inolako harremanik izan gabe, duela hamabi urte, 26 urterekin, proba egitera hurbildu zen Iker Marizkurrena Imaz sunbildarra. Arraunaren arrak kosk egin zion, dudarik gabe, eta hamabi urte emankor egin ditu Hondarribian. Orain, 38 urterekin, arrauna, Arcelor Mittal lantegiko lana eta familia uztartu ezinik, arrauna uztea erabaki du. Hamabi urte hauen errepasoa egin dugu Marizkurrenarekin: «Momentu onak hagitzez gehiago izan dira txarrak baino» azpimarratu digu, baina ez du berriz trainerura igotzeko asmorik. Halere, esker hitzak bertzerik ez ditu Hondarribia Arraun Taldearentzat eta taldekide izandakoendako.

Zenbat urte eman dituzu Hondarribia Arraun Taldean eta zer balantze egiten duzu urte hauetaz guztietaz…

Hamabi urte egin ditut arraunean eta balantzea arras positiboa da, nire urterik onenak Hondarribiarekin pasa ditut, Kontxak, ligak, txapelketak eta estropada aunitz irabazi ditugu, baina horretaz aparte, kristoren pertsonak ezagutu ditudalako nago kontent.

Nola murgildu zinen arraunaren munduan? Lehendik bazenuen harremanik kirol honekin? Bertze kirolekin?

Kirola betidanik gustatu izan zait, gehienbat bizikleta, baina arrauna ere beti ikusten nuen telebistan. Egun batean probatzera joan nintzen Hondarribiara, aunitz gustatu zitzaidan eta joan den urtera arte.



Iker Marizkurrena sunbildarra, Hondarribia Arraun Taldearentzat lanean, iaz.

Hasi zinenean pentsatu zenuen noizbait Kontxako hiru bandera irabaziko zenituela?

Ez, egia erran ez nuen Kontxa sekula jokatuko nuenik ere espero. Lehenbiziko urtetan A taldean sartuko nintzenik ere ez nuen uste eta hiru bandera jarraian irabaztea oraindik guttiago. Baina ikaragarrizko suertea izan dut, sekulako arraunlariak, eta patroi eta entrenatzailerik onenak izan ditudalako ondoan.

Horiek dira zure oroitzapenik onenak?

Denak dira oroitzapen onak, baina Kontxak eta ligak irabazitakoan taldekideekin bizitako momentuak ahaztezinak dira.

Eta txarrenak?

Momentu onak hagitzez gehiago izan dira txarrak baino. Txarren bat aipatzeagatik 2017ko Kontxa hura aipatuko nuke edo 2012an bizkarreko lesioa izan nuen momentua.

Orain uztea erabaki duzu… Zergatik? Behin betiko erabakia izan da edo ez duzu itzultzea baztertu? Eta arraunean ez bada, inguruan laguntzaile edo segitzea ez duzu pentsatu?

Arrauna uztearen arrazoirik handiena lana izan da, *correturnos* aritzen bainaiz. Arraunean hamar hilabetez, astean sei egunez entrenatzen genuen eta, orain, semea eduki eta gero hori dena uztartzea ezinezkoa zait. Hagitz zaila egin zait erabakia hartzea, baina bai, behin betirako utzi dut. Eta ez zait gogoratu entrenatzaile, laguntzaile edo klubaren iguruan segitzea, momentuz ez. Orain estropadak ikusiko ditut lasai-lasai, ahalik eta lasaien, baina maiz bisitaren bat eginen dut Hondarribia aldera.

Arraro egiten al zaizu estropadak ikustea, zu traineruan joan gabe?

Bai, pixka bat bai. Gainera, kanpotik ikusita urduriago jartzen zara, oraindik lagundu egin nahi duzu, baina ezin duzu deus ere ez egin. Espero dut aurten garaipen aunitz lortzea, estropadak lasaixeago ikusteko.

Nola ikusten duzu aurtengo denboraldia?

Denboraldia ongi ikusten dut, aurten ere hagitz talde ona dute, ongi hasi ziren lehenengo estropada irabaziz, baina bigarrenean suerte txarra izan zuten eta ligan puntu batzuk galdu dituzte. Bi talde hagitz indartsu daude, baina espero dut liga aurten Hondarribiara etortzea.

Bertzerik?

Eskerrak eman Hondarribia Arraun Taldeari, bizi izan ditudan momentu zoragarri haiek bizitzeko aukera emateagatik.

HITZ GEZIDUNAK

- Lasterka, korrika / Arintzeko baliagarria
- Gizon izena / Haran, bailara
- Umorezko kolpe / Pisu unitatea
- ◆ Sorterria / Marokoko hiriburua
- Maitasunez beteak / Kasik, abantzu
- ◆ Deitura / Gipuzkoako udalerria
- Lan bikain / ◆ Izena
- Senidea / Txantxa
- Baldin-tzetan / Salmenta mota
- Tona, labur-labur / Zorro handia
- Meategi / Noka, goazen
- Asiako estatua / Etxalarren ugari
- Ateko erroak / Rutenioa
- Zoroak / Hasi!
- Ukazio, ukapen / Kontso-nantea
- Ume bihurtua / Xafla
- Ez eme / Erbioa
- H2O / Gure planeta
- Zegoen / Musika nota
- Sobera, gehiegi / Sute
- Lehenengo bokala / Lesakako ibaia
- Indar handiko / Bokal mehea
- Lehenengo letra / Bokala
- Zintzo
- Haiek berak

◆ Palista baztandarra

GOITIBEHERA

1
2
3
4
5
6
7
8
9
10
11

Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

[1] Zelatan aritzen den pertsona. [2] Eraikuntzetan, fatxadaren goialdea bururatzen duen irtengune. [3] Gure lurraldeko udalerria, Leitzaranen. [4] Landa lau, eskuarki belarra duena. [5] Zaldiaren gaineko jarlekua. [6] Euskal Herriko sindikatua, afiliatu gehien dituena. [7] Erretegi. [8] Urteroko landare txiki berde. [9] Harri beltza. [10] Era berean, orobat. [11] Segituan, amen batean, aurki.

ERANTZUNAK



ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Etxea salgai 400m²ko lursailarekin. Terrazaren gainean bertze

bi etxebizitza egiteko baimena eta proiektua. Lauko bazkide kooperatiba, familia handi edo partikularrentzako aproposa. ☎664 71 18 53.

ERRENTAN EMATEKO

IRUÑEA. Hiru logelako pisua errentan emateko, UPNAren ondoan. 3.pisua, igogailuarekin. ☎630 04 54 13 / 620 20 96 63.

ERRENTAN HARTZEKO

Eskari handiagatik alokairuko etxebizitzak behar dira. Jabearentzat kosturik gabe. Kontratua eta kudeaketa barne. ☎620 02 86 25 / 948 63 05 52.

KONPARTITUAK

Etxalarko bi neska gazte, pisukide baten bila ari dira 2021-2022 kurtsorako. Pisua Donostiako Amaran dago. ☎634 98 12 86 / 638 80 78 51.

LANA

ESKARIAK

Adinekoak eta haurrak zaintzeko lan bila, interna moduan. ☎632 75 93 48.

Interna moduan esperientzia handia duen emakumea lan bila. Garbitasunean, sukaldean, zaintzan ongi moldatzen dena. ☎694 42 03 10.

Adineko pertsonak zaintzen esperientzia duen emakumea lan bila. Etxeak garbitzen ere esperientzia duena eta ostalaritzan ere ibilia. ☎633 66 52 46.

Adineko pertsonak zaintzen dituena, etxeko lanak egiten dituena eta ostalaritzan esperientzia duen emakumea lan bila. ☎611 31 02 25.

ESKAINTZAK

MALERREKA inguruko jatetxean zerbitzaria behar dute lanaldi osoan edo erdian aritzeko. ☎605 70 37 05

ELIZONDO. Fruta-denda batean lan egiteko langile bat behar dute. Bidali curriculuma *kifrut@gmail.com* helbidera.

Aldakolan enpresak eraikuntzako langilea behar du. ☎948 58 12 96 edo *info@aldakolan.com*.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

Katakumeak oparitzeko. ☎626 33 53 98.

Katakume alai eta mimosa bat etxe bila. ☎650 79 76 69.

MOTORRAK

SALDU

Seat Toledo salgai. 500 euro. 120.000 kilometro. ☎603 10 25 41.

Seat Leon Sport 2.TDI autoa salgai, 140 zaldi, 5 atekoa. 183.000 KM. Egoera onean. ☎628 90 86 01.

DENETARIK

EROSI

Bizikletako kasko integrala salgai. Giro marka, S tamaina, GoProarentzako eusgarriarekin. Oso egoera onean, gutxi erabilia. Opari kaskoaren funda. 85 euro. ☎606 04 25 11.

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 63 54 58 · www.erran.eus

744 48 43 61 · info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da
ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 €**
Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan
Bizum bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAk ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

DONEZTEBEko AVIA GASOLINDEGIA
CLUB AVIA txartelarekin
%2ko deskontua erregaian
eta %5eko deskontua
dendako produktuetan
Leitza bidea, 49 · T. 948 451 679 · www.doneztebe.net

TXAPARTEGI INMOBILIARIA
ETXEBIZITZA EDO BASERRIA SALDU NAHI DUZU?
Eskari handiarengatik, salgai jartzeko etxeak behar ditugu
(Bera, Lesaka, Etxalar, Arantza Doneztebe, Elizondo...)
SERIOTASUNA ETA PROFESIONALTASUNA
25 URTEKO ESPERIENTZIA DUEN AGENTEA
JARRI HARREMANETAN GUREKIN
API Pinar 7- IRUN
656 708 180
info@inmotxapartegi.com
www.inmotxapartegi.com

GANIX Tallerra
948 63 06 69
Zalain Pol., 11 . BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

ARANTZA ZURGINDEGIA
Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN
Jarrai gaitzazu!
facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

OROIGARRIA

Jose Mari ISTILART ELIZALDE

Amaiurko artzain zakur txapelketan parte hartutako urte guztiengatik ESKER MILE.

Goian bego.

AMAIURKO BESTA BATZORDEA

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58, **744 48 43 61** edo *info@ttipi.eus*

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO
948 05 90 90
ENPATIA, HURBILTASUNA ETA BEGIRUNEA
www.izarratanatorio.com
BEILATOKIAK: Elizondo, Arantza, Bera, Igantzi Doneztebe

BAZTAN BIDASOA
Ehorzketa Zerbitzuak
BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3
web: **funerariabaztanbidasoa.com**
Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO **ETXEETAKO ZERBITZUAK** ere
24 ORDU 365 EGUN
948 48 95 50
info@funerariabaztanbidasoa.com
Betiko taldea zu laguntzeko

IRACHE
tanatorioak
Nafarroako familien zerbitzura 1976tik
BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA
ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara
948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

URTEBETETZEAK

Berako **Oier Larretxea Agirre**k 21 urte beteko ditu abuztuaren 26an. Aunitz urtez, pasa egun ona eta ea nola ospatzen dugun!

Aunitz urtez **Eneritz**! Egun ederra pasa dezazula abuztuaren 13an. Berriki laneko martxa ez duzula galdu erakutsi diguzu eta eskerrik asko! Muxu haundi bat!

Larraitz eta **Ainara** lehengusinek 7 eta 6 urte beteko dituzte abuztuaren 23an. Ongi pasa eta zorionak etxekoen partetik.

Amezti inguruan bada ospatzeko aitzakiarik. Abuztuaren 9an, 10ean eta 15ean urteak beteko dituzte **Beñat, Udane eta Hilari**k. Egun ona izan denen partetik eta tarta goxoa espero omen du zuen arreba-biloba Iratik.

Eneko Ugalde Fagoagak 6 urte beteko ditu abuztuaren 24an. Aunitz urtez eta muxu haundi-haundi bat Arantzako eta Azpeitiko familiaren partetik.

Sunbillako **Ibai Petrirena Gorosterrazu**k abuztuaren 9an 11 urte beteko ditu. Aunitz urtez familia guztiaren partetik eta bereziki, Iraide eta Garaine lehengusinen eta Ander anaiaren partetik. Aurtengoan ospakizun berezia eginen dugu. 11 mila muxu.

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Ttipi-Ttapan!

Internetez: *http://erran.eus/zorionagurrak* helbidean sartu.
Bulegora etorrita:
Etor zaitez Ttipi-Ttaparen bulegora: Koskontako bidea, 7-1, 31770 LESAKA.

HARTU TTIPI TXARTELA
eta erabili pegatina hau ikusten duzun denda eta zerbitzuetan
ttipi txartela
Aprobetxatu aukera!
ttipi-ttapa

PLAZAN BAZAN

MEZUA

Eman marrazki bakoitzari dagokion hizkia eta esaera polit bat agertuko zaizu.

ALFABETOA

SUDOKUA

Margotuta dauden laukitxoetatik abiatuta, kolore gorria, urdina, horia eta berdearekin, hutsik dauden laukitxoak margotu behar dira. Ilada, zutabe edo eremu berdinean ezin da kolorerik errepikatu.



INTERNETEN ERE BAI !

http://plazanbazan.eus/

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

HIRU, BI, BAT

Gauza gehienak
hiru aldiz ageri dira.
Gauzetako bat, aldiz,
behin bakarrik
ageri da.
Pinta ezazu.

PUZZLEA





Puzzle hau osatzeko bederatzi pieza behar ditugu, baina hemen 12 daude. Zeintzuk dira txarrak?

Ttipi Txartelarekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 **LESAKA**
T. **948 63 54 58** | M. **744 48 43 61**
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

787 zenbakiko irabazleak >

Donostiako aquariuma - Bi sarrera
Angel Irazoki Irazoki | LESAKA
Onddo Ta Punto - Kamiseta bat
Miguel Mortalena Oteiza | ELLZONDO
La Rhune - Sarrera bat
Asuncion Orbegozo Arrastio | DONAMARIA
Kimetz Belardenda - Otar bat
Felisa Agerre Lizarreta | ARRAIOZ
Irrisarri land - Sarrera bat
Jon Olasagasti Sasturain | LEITZA
Martiko - Lote bat
Olga Olveira Ustaritz | BERA
Txalaparta - Bi liburu
Aide Amarika Llano | DONEZTEBE
Txalaparta - Bi liburu
Jose Migel Mihura Castro | URDAZUBI

ZOZKETAK

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

Bi sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com

Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu

Sarrera bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com

Sarrera bat

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com

Sarrera bat

OKILLE TAILERRA
okilletailerra.blogspot.com

Eguzkilore bat

WOW PARK
www.wowpark.fr

Wow park
Votre Parc Aventure

Bi sarrera bikoitz

LIBURUAK

- Plastiko-zopa
- Nolakoa da zure garuna?
- Galaxien umea
- Bai ondo ilunpean!

TTARTTALO
www.ttarttalo.eus

LA GUNTZAI LEAK

www.katxiporreta.eus

www.buatxabal.eu